

LANBIDE PROGRAMACIÓN
HEZIKETAKO ZIKLOEN DE LOS CICLOS FORMATIVOS
PROGRAMAZIOA DE FORMACIÓN PROFESIONAL

OSTALARITZA
ETA TURISMOA

TURISMO GIDARITZAKO INFORMAZIOKO ETA LAGUNTZAKO
GOI MAILAKO TEKNIKARIA

1.º ~~Etan~~ modulua: Turismo Merkatuaren Egitura

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

LANBIDE
HEZIKETAKO ZIKLOEN
PROGRAMAZIOA

PROGRAMACIÓN
DE LOS CICLOS FORMATIVOS
DE FORMACIÓN PROFESIONAL

OSTALARITZA ETA
TURISMOA

TURISMO GIDARITZAKO INFORMAZIOKO ETA LAGUNTZAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

1. modulua: Turismo Merkatuaren Egitura

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA
Lanbide Heziketako eta Etengabeko
Ikaskuntzako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN
Viceconsejería de Formación Profesional
y Aprendizaje Permanente

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2009

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Egilea: Susana Pedrera Lobato

Koordinazioa: Víctor Marijuán Marijuán
KOALIFIKAZIOEN ETA LANBIDE HEZIKETAREN EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE CUALIFICACIONES Y FORMACIÓN PROFESIONAL
www.kei-ivac.com



Diseinua eta diagramazioa: TRESDETRES

Inprimatzea:

L.G.: BI-1761-09



Esku artean duzun argitalpen hau lanean ari diren lankideek landu dute.

Edozein gairen programazioa oso lan pertsonala da, irakasle bakoitzaren esperientzian oinarritua eta, horrenbestez, subjektiboa. Premisa hori kontuan izanik, programazioa aztertzea eta egoki baderitzozu kontsultarako material gisa erabiltzera gonbidatzen zaitugu. Zure irakasle-lana bideratu dezakeen gida gisa ere baliagarria izan dakizuke.

Izan ditzakeen mugak aintzat hartu badira ere, heziketa-ziklo berrien OCDak abiapuntu izanik sortu eta diseinatu da, eta EAEn curriculum-diseinuaren eta irakaskuntza-programazioaren arloan indarrean dagoen legeria hartu da kontuan (otsailaren 26ko 32/2008 Dekretua).

Erabilgarria izan dakizun espero dugu, eta, aldi berean, egileek lan honetan egindako ahalegina eskertzen dugu.

AURKIBIDEA

UD-EN SEKUENTZIAZIOA ETA DENBORALIZAZIOA	04. or.
0. unitate didaktikoa:	
0. Moduluaren aurkezpena.	05. or.
1. unitate didaktikoa:	
1. Sektore turistikoa aztertzea eta testuinguruan kokatzea.	08. or.
2. unitate didaktikoa:	
2. Tipologia turistikoa ezaugarritzea.	13. or.
3. unitate didaktikoa:	
3. Eskari turistikoa ezaugarritzea.	19. or.
4. unitate didaktikoa:	
4. Eskaintza turistikoa ezaugarritzea eta aztertzea.	26. or.
5. unitate didaktikoa:	
5. Bitartekaritza turistikoa eta banaketa-sistemak aztertzea eta baloratzea.	34. or.
6. unitate didaktikoa:	
6. Gune turistikoa identifikatzea eta aztertzea.	39. or.
7. unitate didaktikoa:	
7. Indize eta estatistika turistikoa interpretatzea eta maneiatzea.	44. or.



Unitate didaktikoen sekuentziazioa eta denboralizazioa

EDUKI MULTZOAK				UNITATE DIDAKTIKO SEKUENTZIATUAK	IRAUPENA
M1	M2	M3	M4		
				UD0: Moduluaren aurkezpena.	1
X				UD1: Sektore turistikoa aztertzea eta testuinguruan kokatzea.	15
X	X			UD2: Tipologia turistikoa ezaugarritzea.	18
	X		X	UD3: Eskari turistikoa ezaugarritzea.	20
		X		UD4: Eskaintza turistikoa ezaugarritzea eta aztertzea.	30
X		X		UD5: Bitartekaritza turistikoa eta banaketa-sistemak aztertzea eta baloratzea.	16
X	X	X		UD6: Gune turistikoa identifikatzea eta aztertzea.	20
X	X	X	X	UD7: Indize eta estatistika turistikoa interpretatzea eta maneiatzea.	12
GUZTIRA					132 ordu

1. multzoa: Sektore turistikoa testuinguruan kokatzea.
2. multzoa: Tipologia turistikoa eta joerak identifikatzea.
3. multzoa: Eskaintza turistikoa aztertzea.
4. multzoa: Eskari turistikoa ezaugarritzea.



0. unitate didaktikoa: MODULUAREN AURKEZPENA.		Iraupena: 1 ordu			
Ikaskuntzaren helburuak:					
<ol style="list-style-type: none"> 1. Moduluen garapeneren plangintza orokorra ezagutzea, baita taldeko kideak ere. 2. Irakasleak prestakuntza-prozesuaren kudeaketan aintzat hartu eta aplikatuko dituen irizpideak ulertzea. 3. Ikasleak moduluari dagokionez dituen eskubideak eta betebeharrak identifikatzea. 4. Moduluen unitate didaktikoen arteko eta moduluen eta beste moduluen arteko lotura nagusiak ulertzea. 5. Norberaren jakintzak identifikatzea, moduluan lortu behar diren jakintzei dagokienez. 					
EDUKIAK		Multzok			
		1	2	3	4
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Zikloko moduluen arteko eta zikloaren eta erreferente dituen kualifikazioen arteko loturak aztertzea. • Diziplinaren, metodologiaren, erlazioen eta antzeko beste gaien inguruan planteatzen diren alderdiak, arauak eta elementuak identifikatzea, eta euskarri egokian erregistratzea. 				
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Zikloa osatzen duten kualifikazioak eta moduluarekiko lotura. • Moduluen ekarpena zikloko helburuak lortzeko garaian. • Moduluen helburuak. • Modulua eta unitate didaktikoak ebaluatzeko irizpideak. 				
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Taldeko kide guztiengan, baita irakaslearengan ere, desiragarriak diren portaeren inguruan adostasuna lortzearen garrantzia baloratzea. • Moduluen garapenean jarraitu beharreko arauak eta irizpideak. 				



JARDUERA					METODOLOGIA		BALIABIDEAK
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikak.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den
			Ir.	Ik.			
J1 Ikasleen eta irakaslearen aurkezpena.	1	10 m	X	X	Irakasleak eta ikasleek nork bere burua aurkeztuko dute. Irakasleak iradokiko ditu aurkezpenean interesgarriak izan daitezkeen alderdiak, eta informazio bat edo bestea ematea hautazkoa izango da.	Helburua da hasierako ezagutza lortzea eta gizarte-oztopoak haustea, taldeko kideen arteko komunikazioa erraztearren. Aurreko ikasturtetik sortutako taldea denean, ez da jarduera hau beharrezkoa izango.	Ez da bitarteko berezirik behar.
J2 Programazioa osatzen duten elementuen aurkezpena.	2-4	10 m	X	X	Irakasleak programazioa osatzen duten elementuak, ordutegiak eta abar aurkeztuko ditu, eta, horretarako, eskema bat erabiliko du edo baliabide informatiko bidezko aurkezpena egingo du.	Ikasleek moduluaren gaiaren programazioari, egiturari, loturei, denborari eta iraupenei buruzko ikuspegi orokorra jaso beharko dute, besteak beste.	<ul style="list-style-type: none"> • Arbela. • Power Point-eko aurkezpena edo antzekoa. • Kronogramak. • Informazioa duten fotokopiak.
J3 Prestakuntza-prozesuaren kudeaketa gidatuko duten irizpideen eta arauen aurkezpena.	2-3	10 m	X	X	Irakatsi eta ikasteko prozesua kudeatzeko erabiliko diren askotariko irizpideak ezagutaraziko ditu irakasleak. Gardenkiez edo beste elementu batzuek lagundutako ahozko azalpena erabiliko du. Hortaz, azterketak zuzentzeko eta ebaluatzeko irizpideak, barne-erregimeneko araudia, diziplina-erantzukizunak, eta abar azalduko ditu. Zalantza guztiak argitzeko denbora-tartea zabalduko da.	Horrela, ikasleek ikasketa, gizarte eta harremanen arloko esparrua ezagutu eta ulertuko dute, eta arauzko esparru horretara moldatu ahal izango dute haien jarduna.	Ikasgelan edo lantegi-ikasgelan egin daiteke jarduera, eta ez da baliabide berezirik behar.



J4-E1 Egin beharreko lanbide-moduluaren gainean ikasleek aurretik dituzten ezagutzen identifikazioa.	5	30 m	X	X	Jarduera hori elkarrizketaren bidez garatu ahal izango da, baita ikasleek erantzun beharreko irakaslearen galderen bidez, edo, bestela, ondorio horretarako prestatutako galdera irekien bidez edo erantzun anitzeko galderak dituen galdera sorta baten bidez.	Moduluan garatuko diren edukiei dagokienez, ikasleen abiapuntuko jakintza-maila ezagutu nahi da. Abiapuntuko jakintza hori ezagutzeak programazioa berregituratzeko eta taldearen eta gizabanakoen errealitatera egokitzeko aukera emango dio irakasleari.	Galdera sortak.
OHARRAK							
<ul style="list-style-type: none"> Nahikoa izango da J1 jarduera moduluetakoren batean egitea. Zikloko ekipoak adostu beharko du zein modulutan egingo den. J4 jarduera mantendu daiteke, nahiz eta unitate didaktikoetako bakoitzean hasierako ebaluazioa barnean hartzen duen jarduera bat egin. Bi jarduera horiek bateragarriak eta osagarriak izango dira beti. Aurretiazko jakintzetarako lehen hurbilketa izan daiteke, ondoren, unitate bakoitzean abiapuntuko jakintza horretan gehiago sakontzeko. Modulu honen unitate didaktikoetan, jarduerak irakatsi eta ikastekoak (J) edo ebaluaziokoak (E) izan daitezke. Zenbaitetan, jarduera bera, irakatsi eta ikastekoa ez ezik, ebaluaziokoa ere izan daiteke. Halakoetan, jarduera hori (Jn-Em) gisa adieraziko da eta hiru motak bilduko ditu. J-en zenbakikuntza (n) eta E-ena (m) elkarrekiko independenteak dira. 							



1. unitate didaktikoa: SEKTORE TURISTIKOA AZTERTZEA ETA TESTUINGURUAN KOKATZEA.

Iraupena: 15 ordu

IE1: Sektore turistikoa, haren bilakaera historikoa eta egungo egoera dagokion testuinguruan sartzen du, eta jarduera sozioekonomiko gisa dituen ondorioak aztertzen ditu.

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Sektore turistikoa ezaugarritzen duten oinarriko elementuak definitzea.
2. Turismoaren bilakaera aztertzea.
3. Sektore turistikorekin lotzen diren erakunde publikoak edo pribatuak identifikatzea eta ezaugarritzea.
4. Turismo-jarduerak gune turistikoen garapen ekonomikoari eta sozialari dagokionez duen garrantzia baloratzea.
5. Turismoaren alorreko topaketa nazionalak eta nazioartekoak identifikatzea, baita sektorerako duten garrantzia ere.
6. Teknologia berriek sektore turistikoa duten erabilera ezagutzea, baita turismoa dinamizatzeko elementu gisa duen eragina ere.

EDUKIAK		Multzoak			
		1	2	3	4
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Turismoaren bilakaera aztertzea. • Jarduera turistikoa biztanleriagune baten garapenean duen garrantzia baloratzea. 	X X			
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Turismoa: definizioa, ezaugarritzen duten elementuak eta sailkapen berriak. • Sektore publikoarekin lotzen diren tokiko, eskualdeko, estatuko eta nazioarteko erakunde publikoak eta pribatuak. 	X X			
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Teknologia berriak informazio eta sustapen turistikoko iturri gisa baloratzea. • Turismo-arloko langilea bere lanbidearen esparruan baloratzea. 	X X			



JARDUERA					METODOLOGIA			BALIABIDEAK
ZER egingo duan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikak.	D	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den	
			Ir.	Ik.				
J1-E1 UDaren aurkezpena. Unitate didaktiko honetako gaietan ikasleek aurretik dituzten ezagutzen hasierako ebaluazioa egitea		1,5 h	X	X	Irakasleak ikaskuntzaren helburuak aurkeztuko ditu, unitate didaktikoa modulua barruan kokatuko du, eta modulua osatzen duten gainerako unitateekin lotuko du. Aurkezpenaren ondoren, irakasleak ahozko galderak egingo dizkie ikasle batzuei. Hona orientagarri gisa balagarriak izan daitezkeen hainbat galdera: Zer da turismoa? Noiz sortu zen eta zergatik? Zer bilakaera izan du denborarekin?	<ul style="list-style-type: none"> Aurretik ikasleek dituzten ezagutzak hautemateko, eta ikasleek aurretiazko ezagutza horien eta ikaskuntzaren helburu diren ezagutzen arteko konexioak ulertzeko. Ikasleak motibatuzko eta unitate didaktikoko edukien gaineko interesa pizteko. 	OCDa Unitate didaktikoaren eskema grafikoa. Turismoari buruzko bideo labur eta orokorren bat.	
J2 Turismoaren kontzeptuaren, haren bilakaera historikoaren eta sektorearen ezaugarrien azalpena. J2.1 Turismoaren eta haren bilakaera historikoaren sarrerako azalpena. J2.2 Sektore turistikoaren ezaugarrien gaineko talde-lana.	1,2	3 h	X	X	Irakasleak turismoari eta haren konnotazioei buruzko sarrera laburra egingo du. Material grafikoa oinarrituta, turismoaren bilakaera historikoan zeharreko ibilbidea egingo du, eta ikasleak parte-hartzea eta beren esperientzia eta haien familiena, kontatzera bultzatuko ditu. Ondoren, turismoaren inguruan landutako informazio guztian oinarrituta, ikasleek, taldeka, sektore turistikoaren ezaugarriak ezartzen saiatuko dira. Bateratze-lana egitean, irakasleak ikasleen esku-hartzeak baloratuko ditu, eta emaitzak sektorearen benetako ezaugarrietarantz gidatuko ditu.	<ul style="list-style-type: none"> Kontzeptuak sartzeko jarduera izango da, eta bertan parte-hartzea eta komunikazioa sustatu nahi da eta ideiak eta jakintzak alderatzea bultzatu nahi da. 	Diapositibak. Turismoak historian izan duen bilakaera jasoko duten gardenkiak.	
J3 Turismoak munduan duen inpaktuaren azalpena: inpaktu ekonomikoa, portaeren eta gizarte-balioen gaineko inpaktuak, inpaktu kulturalak eta ingurumenaren gaineko inpaktuak.	1,2,4	1 h	X	X	Turismoak eta bere garapenak munduan sortu dituzten inpaktuak azalduko ditu irakasleak. Edonola ere, gizartearen eta ekonomiaren arloko alderdiei ez ezik, kulturaren eta ingurumenaren arloko alderdiei ere erreparatuko zaie. Inpaktu horiek aztertzeke, ikasleen parte-hartzea sustatuko duten galderak egingo dira. Ikasleek arlo horretako beren ikuspuntua eta beren ideiak azal ditzaten lortu nahi da.	<ul style="list-style-type: none"> Helburua turismoan sakontzea eta turismoaren bilakaerak gure munduan izan dituen eraginaren gaineko informazio bere egitea izango da. 	Diapositibak. Datuak islatuko dituzten gardenkiak. Bideoak.	



J4-E2 Turismoak gure ingurunekeo hiriren batean (esate baterako DONOSTIAN) izan dituen inpaktuen gaineko informazioa biltzea, aztertzea eta txostena egitea.	1,2,4	3 h	X	X	<p>Irakasleak ezarritako gidoiari jarraituz, eta 13 jardueran lortutako ezagutzak oinarri hartuta, turismoak inguruko hiriren batean izan dituen inpaktuei buruzko informazioa tokian bertan bilatzea, edo bibliografia bidez bilatzea. Horretarako, liburutegietara, hemerroteketa, tokiko turismo-bulegoetara eta gaiaren inguruko informazioa izan dezaketen gainerako informazio-iturrietara jotzen lagunduko zaie ikasleei.</p> <p>Lana talde txikietan egingo da. Talde bakoitzari hiri batean sortu diren inpaktu-kategoria horietako bati buruzko informazioa bilatzea esleitu ahal izango zaio, talde guztien artean hiri bereko inpaktu-kategoria guztiak aztertzeke, edo talde guztiek kategoria guztietako informazioa aztertu ahal izango dute, baina ez hiri berarako, hainbat hiritarako baizik.</p>	<ul style="list-style-type: none"> Ikasleek informazioa bilatzeko, aztertzeke, laburtzeke eta, ondoren, ondorioak ateratzeko lan egitea izango da helburua. Azalpeneko aurreko jardueretan lortutako jakintzak sakontzeke eta aplikatzeko jarduera izango da. 	<p>Irakaslearen gidoia. Internet. Bibliografia. Hemerrotekak. Elkarrizketak eta inkestak.</p>
J5-E3 Esperientziak trukatzeta (materiala aurkeztea)	1,2,4	2,5 h	X	X	<p>Sinposioa da proposatzen den azalpenerako talde-teknika. Aditu-taldeak (definitu dugun lan-talde horietako bakoitzak) modu antolatuan azalduko du bildutako informazioa.</p> <p>Honako azalpen-ordena proposa dezakegu:</p> <ul style="list-style-type: none"> Gaia aurkeztea. Kontsultako bibliografia eta informazio-iturriak adieraztea. Lortutako informazioak zehaztasunez azaltzea, sortzen diren zalantzak argitzeke behar besteko eten eginda. <p>Irakasleak behar bezala berraztertuko ditu taldeek egindako txostenak, eta, ondoren, talde guztien artean banatuko ditu txosten horiek.</p>	<ul style="list-style-type: none"> Lortutako informazioa laburtzeke eta komunikatzeko lana izango da. Azalpeneko aurreko jardueretan lortutako jakintzak sakontzeke eta aplikatzeko jarduera izango da. 	<p>Ikasleek diseinatutako eta landutako dokumentua.</p>
J6 Gobernuek eta turismo-antolakunde nagusiek turismoan bete duten zereginaren azalpena.	3,4,5	1 h	X		<p>Irakasleak labor-labor azalduko du gobernuek turismoan bete duten zeregina, eta hurbilenekeo kasuak nabarmenduko dira. Ondoren, gobernuetako zein gobernuz kanpoko turismoaren alorrekeo antolakundeei</p>	<ul style="list-style-type: none"> Helburua da nazioetako agintarietako turismoaren esparruan betetzen duten zeregina nabarmentzea, eta mundu honetan gertatzen den 	<p>Gardenkiak Bideoak Internet Turismo-topaketei</p>



					eta erakundeei buruzko sarrera egingo du. Hori guztia osatzeko, turismoaren alorreko nazioko eta nazioarteko topaketei buruzko nozioak emango dira. Ikasleen parte hartzea sustatuko da, eta beren esperientziak azaltzea bultzatuko da, hala nola bisitatu dituzten turismo-azoketako esperientziak (Fitur, Expovacaciones, Sevatur,...).	internazionalizazioa agerian uztea, orotariko nazioarteko erakundeak, antolakundeak eta topaketak aipatuz.	buruzko gaur egungo liburuxkak
J7 Tokiko turismo-bulego baterako bisitaldi gidatua.	3,4,5,6	1 h		X	Tokiko turismo-bulego bateko instalazioak bisitatu dira bulegoko langile baten laguntzarekin –hala nola Donostia Turismoa–. Bertan egiten diren lanak, lortu beharreko helburuak, egiten diren kanpainak, langile kopurua, eta interesgarriak iruditzen zaizkien pasadizoak eta esperientziak azalduko dira. Bulegoko liburuxkak eta aldizkariak aztertu daitezke, eta, ahal izanez gero, hiriko turismoaren egoera aztertzeke lantegi txiki bat ere egin daiteke.	<ul style="list-style-type: none"> Ikasleek toki-mailan hiriko turismoa sustatzeko nola lan egiten den, zer baliabide dauden, zer ekintza mota egiten den, lana nork koordinatzen duen eta zer helbururekin egiten den ikusteko. 	Datuak biltzeko fitxak Turismo-liburuxkak
E4 Ikaskuntza-prozesuari buruzko prestakuntza-ebaluazioa.	1-6	1 h	X	X	Idatzizko proba baten bitartez, ikaskuntza-prozesuan erdietsi diren lorpenak ebaluatu nahi dira. Jarduera horren helburua da ikaskuntza-prozesua atzeraelikatzea eta, beharrezkoa izanez gero, unitate didaktikoa birpasaetzea, osatzeko edo sakontzeko jarduerak izango diren egokitzapenen bitartez.	<ul style="list-style-type: none"> Ikasteko prozesua ebaluatzeke. 	Proba idatzia.
J8 Esperientziak trukatzeta (itxiera-jarduera)	1-6	1 h	X	X	Taldeak eta irakasleak laburpeneko gogoeta-jarduera egingo dute, funtsezko puntuak identifikatzeko eta zalantzak argitzeko. Horrez gain, ikasleei beste nozio batzuk egituratzen erraztuko dieten orokortasunak egingo dira, eta unitate didaktikoan ikasitako guztia aplikatuko da. E-mailak aurkeztea eta irakatsi eta ikasteko prozesua ebaluatzea sustatuko da.	<ul style="list-style-type: none"> Komunikazioa eta laburpen-lana sustatzeko. Unitate didaktikoko edukiak sakontzeko eta aplikatzeko. Ikasteko prozesua ebaluatzeke. Unitate didaktikoan erdietsitako lorpenak ebaluatzeke. 	Unitate didaktikoaren edukien eskema eta kontzeptuen eskema. Unitate didaktikoa eta ikasteko prozesua baloratzeko galdera sorta.



OHARRAK

- Unitate didaktiko honen edukiak, eta moduluaren gainerako edukiak eta modulua bera, turismoaren azpiarloko heziketa-zikloetarako zeharkako unitate didaktikoak dira. Turismoaren mundura eta haren ingurunera hurbiltzea da helburua.



2. unitate didaktikoa: TIPOLOGIA TURISTIKOAK EZAUGARRITZEA		Iraupena: 18 ordu			
<p>IE1: Sektore turistikoa, haren bilakaera historikoa eta egungo egoera dagokion testuinguruan sartzen du, eta jarduera sozioekonomiko gisa dituen ondorioak aztertzen ditu.</p> <p>IE2: Tipologia turistikoak identifikatzen ditu, eta eskariarekin eta aurreikus daitekeen bilakaerarekin lotzen ditu.</p> <p>Ikaskuntzaren helburuak:</p> <ol style="list-style-type: none"> Sektore turistikoa ezaugarritzen duten oinarrizko elementuak definitzea. Tipologia turistikoak definitzea, eta beren oinarrizko ezaugarriekin lotzea. Banaketa geografikoaren arabera kokatzea tipologia turistikoak. Kokapen espazialean eragina duten faktoreak zerrendatzea, betiere zonaren turismo motaren arabera. Zona bateko turismo-garapenaren alde onak eta alde txarrak deskribatzea. Turismo-tipologia nazionalen joerak aztertzea. Nazioarteko turismo-tipologien joerak aztertzea. 					
EDUKIAK		Multzoak			
		1	2	3	4
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Turismoaren bilakaera aztertzea. Jarduera turistikoak biztanleriagune baten garapenean duen garrantzia baloratzea. Tipologia turistiko bakoitzaren kokapen espazialean eragina duten faktoreak identifikatzea. Tipologia turistiko nagusien kokapen geografikoa finkatzea. Zona bateko turismo-garapenaren alde onak eta alde txarrak identifikatzea. Estatuko tipologia turistikoaren joerak aztertzea. Nazioarteko tipologia turistikoaren joerak aztertzea. 	X X	X X X X X		
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Turismoa: definizioa, ezaugarritzen duten elementuak eta sailkapen berriak. Tipologia turistikoak eta ezaugarriak. 	X	X		



JARRERAZKOAK		<ul style="list-style-type: none"> Teknologia berriak informazio eta sustapen turistikoko iturri gisa baloratzea. Turismo-erloko langilea bere lanbidearen esparruan baloratzea. Gaur egungo turismo-joeren bilakaeraren gaineko interesa. 				X	X			
JARDUERA					METODOLOGIA			BALIABIDEAK		
ZER egingo duan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikak.	D	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den			
			Ir.	Ik.						
J1-E1 Unitate didaktikoaren aurkezpena. Unitate didaktiko honetako gaietan ikasleek aurretik dituzten ezagutzen hasierako ebaluazioa egitea		1 h	x	x	Irakasleak ikaskuntzaren helburuak aurkeztuko ditu, unitate didaktiko moduluaren barruan kokatuko du, eta modulua osatzen duten gainerako unitateekin lotuko du. Aurkezpenaren ondoren, irakasleak ahozko galderak egingo dizkie ikasle batzuei. Hona orientagarri gisa baliagarriak izan daitezkeen hainbat galdera: Zer alde dago Mediterraneoan egiten den turismoaren eta gure Autonomia Erkidegoan egiten den turismoaren artean? Zer bilatzen du turistak oportetara Euskal Herrira etortzen denean? Zer erakargarri turistikoa daude Espainian? Non kokatzen dira? Zer turista mota erakartzen du erakargarri horietako bakoitzak?	Aurretik ikasleek dituzten ezagutzak hautemateko, eta ikasleek aurretiazko ezagutza horien eta ikaskuntzaren helburu diren ezagutzen arteko konexioak ulertzeko. Ikasleak motibatuzeko eta unitate didaktikoko edukien gaineko interesa pizteko.	OCDa Unitate didaktikoaren eskema grafikoa.			
J2 Turismo-produktuaren definizioaren azalpena eta Espainiak eskain ditzakeen turismo-produktuen azalpena.	2,3,6	1 h	x		Irakasleak turismo-produktuaren definizioa azalduko du, eta turismo-produktu izateko produktu batek bete beharreko gutxienezko baldintzak nabarmenduko ditu. Material grafikoa eta turismo-aldizkarietan eta turismo-liburuxketan oinarrituta, irakasleak Espainiak eskain ditzakeen turismo-produktu nagusiak aurkitzera bultzatuko ditu ikasleak.	Ikaslea unitate didaktiko honen gain (turismo tipologia) sartzeko jarduera izango da. Horrela, motibazioaren eta iradokizun grafikoen bidez, ikasleak unitate didaktiko honen atal nagusien edukiak zirriborratuko ditu.	Diapositibak. Espainiako turismo-baliabideen arloko aberastasunari buruzko bideoren bat.			
J3-E2 Zure eskualdea bisitatu duten turistak motibazio nagusiak edo bigarren mailakoak aztertzea, taldean. Ingurune baliabide naturalen inbentarioa egitea, baita turismo-azpiegituraren inbentarioa	2,3,6	1,5 h	x	x	Irakasleak ezarritako gidoi batean oinarrituta, eta hurbileko ingurunea erreferentzia hartuta, gure Autonomia Erkidegoa turismorako destino erakargarria egingo duten faktoreei buruzko informazioa biltzea proposatuko da.	Unitate didaktikoan azalduko ideiak sakontzea eta, batez ere, aplikatzea izango da helburua. Ikasleek tokian bertan eta hurbileneko ingurunean egiaztatu beharko dituzte irakasleak ikasgelan azaldu dituen ondorioak.	Irakaslearen gidioa. Internet. Turismoari buruzko aldizkariak. Turistei kalean bertan egindako inkestak.			



ere (ostalaritza, sarbideak, zerbitzu osagarriak,...).					Lana talde txikietan egingo da, eta ikasleak informazio-iturriak eskura izatea erraztuko da.		
J4-E3 Esperientziak trukatzeari (materiala aurkeztea)	2,3,6	1 h	x	x	Bateratzea da proposatzen den talde-teknika. Definitu den lan-talde bakoitzak modu antolatuan azalduko du aurreko jardueran lortutako informazioa. Talde guztiek beren ondorioak azaldu dituztenean, landutako ideia guztiak biltzen dituen dokumentua aterako du eta talde guztien artean banatuko du.	Lortutako informazioa laburbiltzeko eta komunikatzeko. Ikasleek aurreko azalpen-jardueretan lortutako ezagutzak aplikatzeko.	Ikasleek diseinatutako eta landutako dokumentua.
J5 Tipologia turistikoak azaltzea: - Landa-turismoa - Turismo ekologikoa - Hiri-turismoa - Turismo kulturala	Guztiak	1,5 h	x		Irakasleak labur-labur azalduko ditu unitate didaktikoaren helburu diren turismo tipologietako batzuk. Kasuak kasu dagokion turismo mota definitu beharko da, eta turismo mota horren berariazko eskaria eta eskaintza ezaugarritu beharko da. Amaitzeko, azaldutako tipologia turistikoak ahalbidetzen dituzten helmuga turistikoetako bakoitza geografikoki non kokatzen den finkatuko da. Aditza ematen den turismo mota horietako bakoitzak zer turista mota erakartzen duen definituko da, eta horietako bakoitzak eskura izango duen berariazko zerbitzu-eskaintza nabarmenduko da.	Tipologia turistikoetako bakoitzaren bereizgarritasunak eta ezaugarriak ulertzeko, eta nazio mailan zein nazioartean geografikoki kokatzeko.	Bideoak Berariazko turismo-liburuxkak.
J6-E4 Ikasle bakoitzaren jardueraren autonomia, Euskadi ezagutzeko ibilbide bat diseinatu beharko da, eta motibazio kultural bat edo gehiago erabili beharko da.	1-5	1 h		x	Ikasgelako ikasle bakoitzak gure Autonomia Erkidegoan zeharreko ibilbide bat diseinatu du, baina ibilbide horren motibazio nagusiak kulturala izan beharko du. Turismoaren ikuspuntutik ustiatzen ez diren edo oso gutxi ustiatzen diren interes kultureko tokiak bisitatzeko sustatuko duten proiektu orijinalak eta ezezagunak egitea baloratuko da.	Kultura-turismoaren motibazioak eta ezaugarriak identifikatu ostean, bidaiatzeko motibazio-arrazoi nagusia kultura duten turistak erakarri ahal izango dituen ibilbide orijinala diseinatzea izango da helburua.	Internet. Aldizkariak. Tokiko agentzia turistikoetan lortutako informazioa.
J7 Tipologia turistikoaren azalpena: - Eguzki eta hondartzako	Guztiak	1 h	x		Irakasleak labur-labur azalduko ditu unitate didaktikoaren helburu diren turismo tipologietako batzuk.	Ikasleek definitzen diren tipologia turistikoetako bakoitzaren bereizgarritasunak eta ezaugarriak bereiztea, eta nazio mailan	Bideoak. Berariazko turismo-



<p>turismoa</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kirol-turismoa 					<p>Kasuak kasu dagokion turismo mota definitu beharko da, eta turismo mota horren berariazko eskaria eta eskaintza ezaugarritu beharko da. Amaitzeko, azaldutako tipologia turistikoak ahalbidetzen dituzten helmuga turistikoetako bakoitza geografikoki non kokatzen den finkatuko da.</p> <p>Aditzera ematen den turismo mota horietako bakoitzak zer turista mota erakartzen duen definituko da, eta horietako bakoitzak eskura izango duen berariazko zerbitzu-eskaintza nabarmenduko da.</p>	<p>zein nazioartean geografikoki kokatzea izango da helburua.</p>	<p>liburuxkak.</p>
<p>J8-E5 Kirol-turismoari buruz eztabaidatzeko eta turismo hori aztertzekeo jarduera</p>	1-5	2 h	x	x	<p>Ikasgelan egin beharreko eztabaida baten bitartez, gure eskualdean gehien egiten diren kirolak hautatuko dira. Horietako lau edo bost hautatuko da. Kirol horietako bakoitzaren inguruan gaur egun dauden kirol-azpiegiturak eta harrerarako azpiegiturak aztertuko dira, baita kirol horien eskaintzaren berezitasunak eta eskaria ere. Lortutako datuekin, turismo-liburuxka bat egingo da.</p>	<p>Kirol-turismoaren arloan ikasgelan ikasitako ikasleek hurbileneko ingurunera aplikatzeko, eta irakasleak aurkeztutako orokortasunak gure Autonomia Erkidegorako zehaztasunez definitzeko.</p>	<p>Internet. Ordenagailuak, eta liburuxkak diseinatzeko aukera emango diguten programak.</p>
<p>J9 Tipologia turistikoen azalpena:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Biltzar-turismoa eta pizgarri-turismoa - Osasun-turismoa - Gizarte-turismoa - Beste batzuk: erlijio-turismoa, turismo gastronomikoa,... 	Guztiak	1,5 h	x		<p>Irakasleak labur-labur azalduko ditu unitate didaktikoaren helburu diren turismo tipologietako batzuk. Kasuak kasu dagokion turismo mota definitu beharko da, eta turismo mota horren berariazko eskaria eta eskaintza ezaugarritu beharko da. Amaitzeko, azaldutako tipologia turistikoak ahalbidetzen dituzten helmuga turistikoetako bakoitza geografikoki non kokatzen den finkatuko da.</p> <p>Aditzera ematen den turismo mota horietako bakoitzak zer turista mota erakartzen duen definituko da, eta horietako bakoitzak eskura izango duen berariazko zerbitzu-eskaintza nabarmenduko da.</p>	<p>Ikasleek definitzen diren tipologia turistikoetako bakoitza bereiztea, eta nazio mailan zein nazioartean geografikoki kokatzea izango da helburua.</p>	<p>Bideoak. Berariazko turismo-liburuxkak.</p>
<p>J10-E6 Guztia biltzeko jarduera</p>	1-5	1 h	x	x	<p>Kostak (itsasertzen izenak), parke nazionalak eta gizateriaren ondare izendatutako enklabeak jasoko</p>	<p>Espainiako baliabide turistikoak biltzea eta mapa batean kokatzea izango da helburua.</p>	<p>Espainiako mapa mutua. Internet.</p>



					dituen Espainiako mapa osatu beharko da.	Horrela, ikasleek espazio geografikoa konfiguratu eta Espainiako geografiaren erakargarri turistikoko zonak definituko dituzte.	
J11-E7 Gizarte-turismoari buruzko informazioa bilatzea	1-5	1,5 h		x	Talde txikiak osatuta, organismo eskudunean hirugarren adinekoentzako aurtengo bidaia-programa aurkitu beharko da. Programaren baldintzetako bakoitza aztertu beharko da, eta merkatu orokorrerako programa baliokideen prezioekin alderatu beharko da.	Gizarte-turismoaren arloan ikasgelan ikasitakoa ikasleek hurbilenean ingurunera aplikatzeko, eta irakasleak aurkeztutako orokortasunak gaur egungo egoerarako zehaztasunez definitzeko.	Internet. Bidaia-agentzietan edo organo eskudunetan egin beharreko kontsultak.
J12-E8 Ikasleen hirira edo hirietara turismoa erakartzeko jarduerak edo ekitaldiak antolatzeari buruzko txostenak egitea.	1-5	3 h	x	x	Ikerketa-jarduera bat izango da. Ikasle-talde bakoitzak hirira turismoa erakartzeko jarduerak (azokak, festak, erakusketak, kontzertuak, biltzarrak,...) antolatzeaz arduratzen diren organismoak aztertuko ditu. Organismo horiek zer metodo erabiltzen duten eta zer baliabide duten jakin nahi da (zuzkidura ekonomikoa, giza baliabideak eta bitarteko materialak).	Gaur egun dauden turismo tipologia ezagutu ostean, ikasleen hirian azterketalana egin beharko da. Ikasleek organismo eskudunek zer erakargarri turistiko mota sustatzen duten ikusi beharko da, eta helmuga turistiko garrantzitsu bihurtzen saiatzeko egiten diren kanpainak aztertu beharko da. Aldi berean, hiriak zer turismo mota erakartzen duen definitu beharko da, eta hiriaren eskaintzaren eta eskariaren ezaugarriak zehaztu beharko dira.	Turismo-aldizkariak. Taldekoen hiriaren organismo eskudunek alor turistikoan lortutako informazioa.
J13 Esperientziak trukatzeta (itxiera-jarduera)	Guztiak	1 h	x	x	Taldeak eta irakasleak laburpeneko gogoeta-jarduera egingo dute, funtsezko puntuak identifikatzeko eta zalantzak argitzeko. Horrez gain, ikasleei beste nozio batzuk egituratzen erraztuko dieten orokortasunak egingo dira, eta unitate didaktikoan ikasitako guztia aplikatuko da. Emaidak aurkeztea eta irakatsi eta ikasteko prozesua ebaluatzea sustatuko da.	Komunikazioa eta laburpen-lana sustatzeko. Unitate didaktikoko edukiak sakontzeko eta aplikatzeko. Ikasteko prozesua ebaluatzeko. Unitate didaktikoan erdietsitako lorpenak ebaluatzeko.	Unitate didaktikoaren edukien eskema eta kontzeptuen eskema. Unitate didaktikoa eta ikasteko prozesua baloratzeko galdera sorta.



OHARRAK

- Unitate didaktiko honen edukiak, eta moduluaren gainerako edukiak eta modulua bera, turismoaren azpiarloko heziketa-zikloetarako zeharkako unitate didaktikoak dira. Turismoaren mundura eta haren ingurunera hurbiltzea da helburua.



3. unitate didaktikoa: ESKARI TURISTIKOA EZAUGARRITZEA

Iraupena: 20 ordu

IE2: Tipologia turistikoak identifikatzen ditu, eta eskariarekin eta aurreikus daitekeen bilakaerarekin lotzen ditu.

IE4: Eskaintza turistikoa eta gaur egungo joerak ezaugarritzen ditu, eta eragiten duten faktoreekin eta elementuekin lotzen du eskaintza.

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Eskarian eragina duten faktoreak baloratzea, baita horien gainean eta horien banaketaren gainean sor dezakegun eragina ere.
2. Eskari turistikoaren faktoreak kontzeptualizatzea eta zehaztea.
3. Tipologiaren eta nazionalitatearen arabera sailkatzea bezeroak.
4. Eskariaren malgutasunean eragina duten kanpo-elementuak deskribatzea.
5. Eskari turistikoaren motibazio nagusiak ezaugarritzea.
6. Eskariaren urtarokotasuna ezaugarritzea, baita urtarokotasunaren joerak iraultzeko teknikak ere.
7. Bezero motaren araberrako erosketa-metodologia aztertzea.
8. Eskariaren gaur egungo joerak eta garatzeko bidean diren merkatuak ikertzea.
9. Bezeroak ezagutzeak eskari turistikoaren dinamizatzaile gisa duen garrantzia baloratzea.

EDUKIAK		Multzoak			
		1	2	3	4
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Eskarian eragina duten faktoreak baloratzea eta horien aldatzeko ahalmena baloratzea. • Bezeroak tipologiaren eta nazionalitatearen arabera sailkatzea. • Eskari turistikoaren motibazioak identifikatzea. • Eskari turistikoaren gaur egungo joerak aztertzea. • Bezero motaren araberrako erosketa-metodologia aztertzea. 		X		X X X X
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Eskari turistikoa. Definizioa eta ezaugarriak. • Eskari turistikoaren malgutasunean eragina duten kanpo-elementuak. • Eskariaren urtarokotasuna. Urtarokotasunaren joerak iraultzeko ekintzak. 				X X X
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Gaur egungo turismo-joeren bilakaeraren gaineko interesa. • Bezeroak eskariaren elementu dinamizatzaile gisa ezagutzeko interesa. 		X		X



JARDUERA					METODOLOGIA		BALIABIDEAK
ZER egingo duan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikat.	D	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den
			Ir.	Ik.			
J1-E1 Unitate didaktikoaren aurkezpena. Unitate didaktiko honetako gaitan ikasleek aurretik dituzten ezagutzen hasierako ebaluazioa egitea		1 h	X	X	Irakasleak ikaskuntzaren helburuak aurkeztuko ditu, unitate didaktikoa moduluaren barruan kokatuko du, eta modulua osatzen duten gainerako unitateekin lotuko du. Aurkezpenaren ondoren, irakasleak ahozko galderak egingo dizkie ikasle batzuei. Hona orientagarri gisa baliagarriak izan daitezkeen hainbat galdera: Koka gaitzezen gabonetako edo aste santuko oporretan, zer gertatzen da eski-estazioen zerbitzuetako prezioekin, denboraldiko gainerako prezioekin alderatuta? Zergatik? Zer faktore dela eta hautatzen dute ikasleek helmuga turistikoa bat beren oporretarako? Zer dela eta egin du gora turismoak aurreko belaunaldietako joerarekin alderatuta?	Aurretik ikasleek dituzten ezagutzak hautemateko, eta ikasleek aurretiazko ezagutza horien eta ikaskuntzaren helburu diren ezagutzen arteko konexioak ulertzeko. Ikasleak motibatuzko eta unitate didaktikoko edukien gaineko interesa pizteko.	OCDa. Unitate didaktikoaren eskema grafikoa.
J2 Merkatuaren funtzionamenduari buruzko sarrerako azalpena	2	1 h	X		Irakasleak merkatuek, oro har, nola funtzionatzen duten azalduko du. Aztergai dugun gaia kontuan izanik, eta, oro har, merkatuaren kontzepturako hurbilketa egin ostean, merkatu turistikoa nabarmenduko da. Izan ere, ikaslen laguntzarekin, merkatu hori beste merkatu batzuetatik bereizten duten ezaugarriak bereizten hasiko da.	Ikasleak oso kontzeptu ekonomiko sinpleetan, baina, era berean, ezezagunetan sartzeko. Unitate didaktiko hau zein esparrutan garatuko den zirriboratzeko, eta, horrela, unitatearen xede den eskariari buruzko edukiak azaltzean ikasleak gaian behar bezala kokatuta egoteko.	Grafikoak. Ikaslearengandik hurbil dauden kasu praktikoa.
J 3 Eskari turistikoa azalpena: definizioa eta ezaugarriak.	2,9	1 h	X		Merkatu turistikoa kokatuta, irakasleak eskari turistikoa definizioa emango du. Ondoren, irakasleak eskari turistikoa ezaugarritzen eta bereizten duten puntuak emango ditu aditzera. Izan ere, turismo-kontsumoaren ezaugarri bereziak direla kausa, turistaren erabakiak hartzeko prozesua prozesu konplexua dela nabarmenduko du. Azalpen osoa	Eskari turistikoa, berez, bidaiatzeko garaian hartzen ditugun erabakiekin guztiok definitzen dugun funtzioa baino ez dela ulertzeko ikasleek. Ikasleek eskari turistikoa	Diapositibak. Estatistikak. Grafikoak.



					ikaslearengandik hurbil dauden adibide praktikoekin osatuko da.	ezaugarriak ikusteko eta ezaugarri horiek ondorioztatzen parte hartu ahal izateko.	
J4-E1 Eskari turistikoaren kontzeptua ulertzeko ariketa praktikoa	2,9	0,5 h	X	X	Aldi jakin baterako, eta prezioen arabera, hotel baten zerbitzuen eskaintzaren eta eskariaren datu estatistikoak emanik, prezioetako bakoitzerako aldi horretan izandako eskariaren datuak bilduko dituen taula diseinatzea eskatuko zaio ikasleari. Ondoren dagokion eskariaren grafikoa egin beharko du, eta datu horietatik atera daitezkeen ondorioak aterako ditu. Zer bilakaera du eskariaren kurbak? Urteko zein sasoikoak izan daitezke datu horiek? Zergatik? Zer motatako hotela izan daiteke planteatutako suposizio hotela? Zergatik?	Ikasleek eskariaren estatistiken tratamendua ulertu eta ikusteko, eta aldi eta merkatu jakin bati buruzko ondorioak ateratzeko garaietan datu estatistikoen analisiak duen garrantziak jabetzeko.	Irakasleak aurkeztu beharreko problemaren enuntziatua.
J5 Eskari turistikoaren berezitasunen azalpena: \sum Eskari turistikoaren eragina duten faktoreak \sum Eskari-kurbaren gorabeherak \sum Eskariaren elastikotasuna eta Veblen efektua \sum Eskariaren urtarokotasuna eta urtarokotasunaren joerak iraultzeko teknikak	1,2,4,6	1 h	X	X	Eskari turistikoaren kontzeptua ezagutu ondoren, irakasleak eskari horren berezitasunak sakonduko ditu. Horretarako ikasleen parte-hartzea sustatuko duten galderak eta planteamenduak erabiliko ditu. Eskarian eragina duten faktoreak, eskariaren gorabeherak eta eskariaren elastikotasunaren eta urtarokotasunaren kontzeptuak argituko ditu irakasleak. Ikasleak landu nahi diren kontzeptuak ondorioztatzeko egoerak eta adibideak planteatuko dira, guztia taldearen elkarlanarekin sor dadin, eta ez irakaslearen azalpen teoriko huts bidez.	Ikasleak eskari turistikoaren aldaketak ulertzeko, batez ere aldaketa horien azpian dauden kausak. Horrez gain, aldaketak ezagutu ostean, aldaketa horiek eragin dituzketen ondorioak aurreikusteko gauza izango da ikaslea. Ikasleek urtarokotasuna eskari turistikoaren berezko bereizgarri gisa hautemateko. Ezaugarri hori aztertutakoan, gauzatzen diren edo gauza daitezkeen urtarokotasunaren joerak iraultzeko politikak baloratzeko gauza izango dira ikasleak.	Diapositibak. Eskari-kurben grafikoa.
J6-E2 Prentsa artikulua baten analisi gidatua	Guztiak	1 h	X	X	Irakasleak 15 jardueran jorratutako gairen bati buruzko prentsa-artikulu baten jatorrizko testua emango die ikasleei. Eskari turistikoaren urtarokotasunaren ondorioak arintzeko	Ikasleek eskolan ikusitako kontzeptu teorikoak testuinguru errealean identifikatzeko eta kontzeptu horiek	Prentsa-artikuluaren testua. Irakasleak emandako gidaria, galderak dituenak.



					gobernuak planteatutako INSERSOren bidaien ingurukoa izan daiteke, adibidez. Gidoi gisa, ikasleak hainbat galdera izango ditu testuarekin lan egiteko, eta amaieran espazioa izango du aplikatutako neurria baloratzeko eta neurri horiek benetan izan dituzten ondorioak baloratzeko, betiere eskolan eskuratutako jakintzetan oinarrituta.	inguruko turismoaren testuinguruan duten aplikazioa hautemateko.	
J7 Eskari turistikoaren aniztasunari eta berau segmentatzeko beharrari buruzko azalpena	1,2	1 h	X		Irakasleak azalpen eta gogoeta laburren bidez hautemanaraziko die ikasleei eskari turistikoaren bereizgarri den aniztasuna. Aniztasuna hauteman eta aniztasun hori segmentatzeko beharra ikusi ondoren, segmentazio hori nola eta zergatik egingo den azalduko zaie ikasleei.	Ikaslea jakitun izateko merkatu turistikoaren segmentu bakoitzak berariazko portaera duela haren beharren, lehentasunen eta ezaugarrien arabera. Horrenbestez, ikasleek jakin beharko dute eskaria kontsumitzeko jarraibideak ezagutzen diren heinean ziurtatuko dela turismoaren alorreko enpresa-proiektu bat bideragarri egiteko behar besteko merkatu-kuota hartuko dela.	Diapositibak.
E3 Ikaskuntza-prozesuari buruzko prestakuntza-ebaluazioko jarduera	1,2,4,6,9	1 h	X	X	Ikasleek gaiaren inguruan eskuratutako jakintzak baloratzeko proba egingo du irakasleak. Hainbat galdera izango dituen orria emango zaie ikasleei, galderak erantzun ditzaten. Honakoen gisako galderak izan daitezke: Zer faktorek dute eragina eskari turistikoan? Lanaldia astean 4 egunetara murriztuko balitz, zer ondorio izango luke eskari turistikoan? Hondartzako hotel baten guztizko sarrerak zer bilakaera izango du, marketin-zuzendariak prezioak % 4 merketzea erabakitzen badu eta hotelaren elastikotasuna 1,5ekoa bada? Zer gertatuko da eski-estazio bateko hotel-plazen eskariarekin, arrasteen prezioak murrizten badira? ...	Ikasteko prozesua ebaluatzeko	Proba idatzia.



J8 Emaidzak aurkeztea eta proba idatzia zuzentzea	1,2,4,6,9	1 h	X	X	Proba idatzia aztertzeko gogoeta-jarduera egingo da. Proba idatziaren emaitzak aurkeztuko dira, eta akatsik adierazgarrienak aipatuko dira. Emitzen arabera eta probaren ebaluazioan egindako oharren arabera, proposatuko dira aldaketak irakatsi eta ikasteko prozesuan.	Proba idatziaren emaitzak aztertzeko	Emitzen grafikoa.
J9 Bezero moten eta mota horietako bakoitzak erabilitako erosketeta-metodologiaren azalpena	3,7,9	1,5 h	X		Irakasleak labur-labur azalduko ditu turismoaren alorrean identifika daitezkeen bezero motak. Profiletako bakoitza definitu ostean, bezero mota horietako bakoitzaren erosteko metodologia aztertuko da. Ikasleari transmititu nahi zaizkion edukiak hurbileko ingurunean identifika daitezkeenez gero, ikasleen parte-hartzea sustatuko da. Horrela, ikasleen esperientzien eta iruzkinen bitartez lortu ahal izango dira azalpenaren eduki eta ondorio nagusiak.	Ikasleek ulertzeko askotariko bezeroak daudela, eta jakiteko bezero mota bakoitza bere moduan mugitzen dela erosketaren aurrean, eta, jakina, bezero mota bakoitzak bere tipologiaren arabera tratamendu egokia behar duela.	Bideoak.
J10 Bezero mota identifikatzeko jarduera	3,7,9	1 h	X	X	Irakasleak multzoa bitan banatuko du. Ikasleen erdiak bezeroaren papera beteko du eta beste erdiak saltzailearen lana egingo du. Bezero-ikasle bakoitzari bezero mota jakin batekin identifikatuko duen papera emango zaio. Bezero-ikasle bakoitzak dagokion erosketara egin beharko du, betiere interpretatzea suertatu zaion bezero mota kontuan izanik. Saltzaile izango diren ikasleek aurrean duten bezeroa zer motatakoa den identifikatu beharko dute, identifikazio hori justifikatu beharko dute, eta hautemandako bezero mota horretarako tratamendu egokia erabaki beharko dute.	Ikasleek ikasgelan aztertutako bezeroen artean identifikatu diren bezero mota bakoitzaren ezaugarriak ikasteko, eta, horrenbestez, bezero mota bakoitzak erosteko erabiltzen duen metodologia identifikatzeko eta tratamendu egokia aplikatzeko.	Ikasgela. Bideokamera (bidezkoa bada).
J11 Motibazio turistikoei eta erosketan eragina duten motibazio-alderdiei buruzko azalpena	5	1 h	X		Norbanako batek produktu edo zerbitzu turistiko bat erosteko zer arrazoi dituen azalduko du irakasleak labur-labur. Aurreko azalpenen kasuan bezalaxe, ikasleen parte-hartzea sustatuko da, azalpena ahalik eta dinamikoena izan dadin eta parte-hartzea ahalik eta handiena izan dadin.	Norbanakoak erosketara egiteko zer motibazio duen identifikatzeko ikasleek.	Diapositibak. Bideoak.



J12 Espainiako eskari turistikoaren azalpena	8	1 h	X		Eskari turistikoaren funtsezko kontzeptuak ikusi ondoren, irakasleak ikasle-taldearen laguntzarekin Espainiako eskari turistikoaren bilakaera aztertuko du. Azterketa hori egin ostean, eta azken urte hauetako turismo-zerbitzuen eskariaren portaera hauteman ondoren, irakasleak labur-labur azalduko du datozen urteetarako aurreikusten den bilakaera.	Ikasleak jakiteko eskari turistikoak azken urte hauetan Espainian izan duen bilakaera eta datozen urteetarako aurreikusten den bilakaera.	Estatistikak. Grafikoak.
J13 Aurreko jardueran aztertutako datu turistikoari buruzko gogoeta egitea taldean	8	1 h	X	X	Irakasleak talde txikietan banatuko ditu ikasleak eta Espainiako turismoaren datu estatistikoak emango dizkie. Ikasleek datu horiek talde txiki horietan eztabaidatuko dituzte, eta positiboak edo negatiboak diren eta hobetu daitezkeen eta nola baloratuko dute. Talde bakoitzak dokumentu bat landu beharko du eta, bertan, ondorio arrazoituak eta Espainiako eskari turistikoak dinamizatzeko proposatzen diren neurriak jaso beharko ditu.	Ikasleek aldian behin argitaratzen diren datu estatistikoetatik ondorioak ateratzen ikasteko. Ondorio horiek atera ostean, eta eskari turistikoan eragina duten faktoreak jada aztertu direnez gero, eskari hori hobetuko duten neurriak finkatu beharko dituzte ikasleek.	Estatistikak. Internet. Turismoaren sektoreko aldizkariak.
J14-E4 Esperientziak trukatzea	8	1 h	X	X	Sinposioa da proposatzen den azalpenerako talde-teknika. Azken urteetako turismoaren datuak aztertu ondoren, taldeetako bakoitzak ateratako ondorioak azalduko dizkie gainerakoei. Era berean, talde bakoitzak Espainiako eskari turistikoak dinamizatzeko iradokitzen diren neurriak proposatuko dizkie gainerakoei.	Ikasle bakoitzak eskariaren inguruan ikasitako guztia praktikan jartzeko, zehazki eskarian eragina duten faktoreen eta eskariaren elastikotasunaren inguruan ikasitakoa.	Ikasleek diseinatutako eta landutako dokumentua.
J15 Europan turismoak dituen joeren azalpena	8	1 h	X		Aurreko puntuetan egin den bezalaxe, irakasleak Europa mailan eskari turistikorako aurreikusten diren joerak eta bilakaera aztertuko ditu puntu honetan. Datu estatistiko ofizialetan oinarrituta, Europan datozen urteetan turismoak eta eskari turistikoak zer bilakaera izatea espero den azalduko du labur-labur irakasleak.	Ikasleak jakiteko eskari turistikoak azken urte hauetan Europan izan duen bilakaera eta datozen urteetarako aurreikusten den bilakaera.	Estatistikak. Grafikoak.



J16 Esperientziak trukatzea (itxiera-jarduera)	Guztiak	1 h	X	X	Taldeak eta irakasleak laburpeneko gogoeta-jarduera egingo dute, funtsezko puntuak identifikatzeko eta zalantzak argitzeko. Horrez gain, ikasleei beste nozio batzuk egituratzen erraztuko dieten orokortasunak egingo dira, eta unitate didaktikoan ikasitako guztia aplikatuko da. Emaitzak aurkeztea eta irakatsi eta ikasteko prozesua ebaluatzea sustatuko da.	Komunikazioa eta laburpen-lana sustatzeko. Unitate didaktikoko edukiak sakontzeko eta aplikatzeko. Ikasteko prozesua ebaluatzeko. Unitate didaktikoan erdietsitako lorpenak ebaluatzeko.	Unitate didaktikoaren edukien eskema eta kontzeptuen eskema. Unitate didaktikoa eta ikasteko prozesua baloratzeko galdera sorta.
OHARRAK							
<ul style="list-style-type: none"> Unitate didaktiko honen edukiak, eta modulua gainerako edukiak eta modulua bera, turismoaren azpiarloko heziketa-zikloetarako zeharkako unitate didaktikoak dira. Turismoaren mundura eta haren ingurunera hurbiltzea da helburua. 							



4. unitate didaktikoa: ESKAINTZA TURISTIKOA EZAUGARRITZEA ETA AZTERTZEA							Iraupena: 30 ordu			
IE3: Eskaintza turistikoa aztertzen du, eta haren osagai nagusiak eta bitartekaritza eta banaketako bideak ezaugarritzen ditu.										
Ikaskuntzaren helburuak:										
<ol style="list-style-type: none"> 1. Eskaintza turistikoa definitzea, eskaintzaren elementuekin eta oinarrizko egiturekin batera. 2. Tipologiaren eta oinarrizko ezaugarrien arabera bereiztea turismo-ostatuko enpresak. 3. Garraibide turistikoa eta horiekin lotzen diren zerbitzuak identifikatzea. 4. Eskaintza osagarria ezaugarritzea. 										
EDUKIAK							Multzoak			
							1	2	3	4
PROZEDURAZKOAK										
KONTZEPTUZKOAK		<ul style="list-style-type: none"> • Eskaintza turistikoa. Definizioa eta eskaintza osatzen duten elementuak. • Turismo-ostatuko enpresak. Definizioa. Motak eta ezaugarriak. • Garraibide turistikoa. Garraioarekin lotzen diren zerbitzuak. • Eskaintza osagarria. 							X	
JARRERAZKOAK		<ul style="list-style-type: none"> • Turismoak duen garrantzi ekonomikoaren balorazioa eta bame-produktu gordinerako ekarpena. 							X	
JARDUERA				METODOLOGIA				BALIABIDEAK		
ZER egingo duan edo duten Jarduera mota	Helburu inplik. D	NORK		NOLA egingo den		ZERTARAKO egingo den		ZEREKIN egingo den		
		Ir.	Ik.							
J1-E1 Unitate didaktikoaren aurkezpena. Unitate didaktiko honetako gaietan ikasleek aurretik dituzten ezagutzen hasierako ebaluazioa egitea	1 h	X	X	Irakasleak ikaskuntzaren helburuak aurkeztuko ditu, unitate didaktikoa modulua barruan kokatuko du, eta modulua osatzen duten gainerako unitateekin lotuko du. Aurkezpenaren ondoren, irakasleak ahozko galderak egingo dizkie ikasle batzuei. Hona orientagarri gisa baliagarriak izan daitezkeen hainbat galdera: Zer eskaintzen dio Espainia		Aurretik ikasleek dituzten ezagutzak hautemateko, eta ikasleek aurretiazko ezagutza horien eta ikaskuntzaren helburu diren ezagutzen arteko konexioak ulertzeko.		OCDa. Unitate didaktikoaren eskema grafikoa.		



					bezalako herrialde batek turistari? Nork eskaintzen dizkio erakargarri horiek turistari? Nahikoa al da hotel-eskaintza bikaina turista batek herrialde batera joan nahi izateko? Zer elementu izan daitezke eskaintza turistikoaren kontzeptuaren parte? Zergatik?	Ikasleak motibatuzko eta unitate didaktikoko edukien gaineko interesa pizteko.	
J2 Eskaintza turistikoaren sarrerako azalpena	1	1 h	X		Irakasleak eskaintzaren kontzeptuan sartuko du ikaslea. Eskaintzaren kontzeptua, oro har, azaldu ostean, merkatu turistikoan oinarrituko da, eta eskaintza turistikoaren kontzeptua definituko du irakasleak. Ikasleei luzatutako galderen bidez, eskaintza turistikoaren osagaiak eta osagai horietako bakoitzaren garrantzia ondorioztatu beharko dute ikasleek. Ikasleen bat-bateko iradokizunak abiapuntu izanik, irakasleak eskaintza turistikoaren oinarritzko egitura definituko du eta osatzen duten elementuetako bakoitza identifikatuko du.	Ikasleak eskaintzaren kontzeptura hurbiltzeko eta merkatu turistikoan kokatzeko. Ikaslea eskaintza turistikoaren aniztasunaren eta konplexutasunaren jakitun izateko, ondo bereizitako eta ezinbesteko hainbat elementu hartzen baititu barnean.	Ikaslearengandik hurbil dauden kasu praktikoak. Diapositibak. Estatistikak. Grafikoak.
J3-E1 Eskaintzaren eta eskariaren kontzeptuak finkatzeko ariketa praktikoa	1	1 h	X	X	Irakasleak une jakin bateko zerbitzu turistiko baten eskaintzaren eta eskariaren datu estatistikoak emango dizkie ikasleei. Eman zaizkion datuak abiapuntu izanik, ikasleak zerbitzu turistiko horren eskaintzaren kurba eta eskariaren kurba irudikatu beharko ditu, eta zerbitzu horren orekarako kopurua eta prezioa erabaki beharko du. Horrez gain, merkatuko prezioa oreka-prezioa baino handiagoa edo txikiagoa bada, zerbitzu turistiko horren merkatuan zer gertatzen den ikusi beharko du ikasleak, eta bi kasu horietan zerbitzu turistikoan zer gertatuko den ondorioztatu beharko du.	Ikasleak eskaintza turistikoa bere egiteko, eta aurreko unitate didaktikoan ikusitako eskari turistikoaren kontzeptuarekin lotzeko. Ikasleak edozein ondasun edo zerbitzuren merkatu-oreka –batez ere merkatu turistikoan– nola lortzen den eta prezioak nola ezartzen diren modu sinplean eta argian ikusteko.	Irakasleak aurkeztu beharreko enuntziatuak eta datuak.
J4 Espainiako eskaintza turistikoaren azalpena	1	1 h	X		Espainiak turismoaren ikuspuntutik eskaintzen duenari buruzko azalpen laburra emango du irakasleak. Eguzki eta hondartzako turismoaren nagusitasuna nabarmenduko du, eta nagusitasun hori ulertarazten duten elementuak aztertuko ditu. Horrez gain, Espainiaren kasuan hautematen diren eskaintza turistikoaren elementuei buruzko galderak	Ikasleak eskaintza turistikoaren eta eskaintza osatzen duten elementuen kontzeptu orokorra ikasitakoan, kontzeptu hori Espainiaren kasuan aplikatzeko, eta Espainiako eskaintza turistiko zehatzaren definizioa lortzeko.	Diapositibak. Internet Bideoak.



					eta elementu horien kalitateari eta erakarmenari buruzko galderak egingo dizkie ikasleei. Horrela, talde osoaren artean, Espainiako eskaintza turistikoaren eskema deskribatzaile argia osatuko dute ikasleek.		
J5-E2 Euskal Herriko eskaintza turistikoaren inguruko jardunbidea talde txikietan	1	1 h	X	X	Ikasleak talde txikietan banatuta, eta aurreko kasuan Espainiako kasurako aztertutakoan oinarrituta, Euskal Herriko eskaintza turistikoa aztertzea eskatuko zaie ikasleei, eta eskaintza horren elementuak zehatz eta argi definitzen saiatu beharko dute (baliabide turistikoak, azpiegiturak, eta turismo-enpresak). Gainera, Euskal Herriko eskaintza turistikoaren kalitatea eta kantitatea aztertu beharko dute.	Ikasleek Espainiaren kasurako aurreko jardueran ikasitakoa hurbileko kasuan aplikatzeko, hau da, Euskal Herrian. Horretarako, Euskal Herriko eskaintza turistikoari buruzko datuak bilduko dituzte, bertako eskaintza turistikoaren egoera baloratzeko.	Internet. Euskadiko turismoari buruzko datu estatistikoak. Turismo-aldizkariak.
J6-E3 Euskal Herriko eskaintza turistikoari buruzko jardunbidearen inguruko esperientziak trukatzea	1	0,5 h	X	X	Euskal Herriko eskaintza turistikoari buruz lan egin duen talde txikietako bakoitzak hauteman duen euskal eskaintza turistikoaren egitura azalduko die gainerakoei bozeramaile baten bitartez. Talde txiki guztien datuak eta ondorioak alderatu egingo dira eta irakasleak ondorio guztiak bilduko dituen dokumentua osatuko du. Halaber, dokumentu hori baliagarria izango da ikasleek Euskal Herriko eskaintza turistikoa aztertzeko.	Ikasleek datuak biltzeko erabilitako metodoa baloratzeko, eta gainerakoan iritzien aurrean bere taldeak lortu dituen ondorioak babesten jakiteko. Ikasleek eskaintza turistikoaren inguruan ikasitakoa sendotzeko.	Ikasleek diseinatutako eta landutako dokumentua.
J7 Turismo-ostatuaren azalpena. Definizioa eta sailkapena. Legeria	2	1 h	X		Irakasleak labur-labur azalduko du turismo-ostatu zer den. Gainera, ikasleei azalduko dizkien irizpide batzuetan oinarrituta, turismo-ostatuaren sailkapena eskainiko du, eta besteak beste honako motak bereiziko ditu: hotel-ostatuak, hotelaz bestelako turismo-ostatuak, eta beste turismo-establezimendu mota batzuk.	Ikasleek aurki daitezkeen turismo-ostatuaren aniztasuna hautemateko. Turismo-ostatuari buruzko araudia ezagutzeko eta Autonomia Erkidego bakoitzean arlo horretako legeak egiteko eskumena nork duen jakiteko.	Diapositibak. Bideoak.
J8 Sailkatutako mota bakoitzeko turismo-ostatuaren azalpena	2	2 h	X		Irakasleak aurreko jardueran abian jarritako gaiari jarraipena emango dio, eta aurreko jardueran sailkatutako mota bakoitzeko turismo-ostatuak sakonduko ditu, eta bereizitako multzo handietako bakoitza jorratuko du. Horrez gain, ostatu-mota bakoitzaren ezaugarriak azalduko ditu, eta mota horiek elkarren artean bereizteko argibideak emango ditu.	Ikasleak ostatu-motak eta horien ezaugarri bereziak identifikatzen jakiteko, eta horrela ostatu bat aurkeztuta ikasleak behar bezala sailkatzen jakiteko, eta sailkapen hori arrazoitzeko.	Turismoaren alorreko araudia. Internet. Diapositibak. Bideoak.



J9-E4 Hiriko edo inguruneko bi turismo-ostatu desberdinetarako bisitaldi gidatua	2	2 h	X	X	<p>Hiriko edo inguruneko bi turismo-ostaturen instalazioak bisitatzea. Bi ostatu horiek mota desberdinekoak izango dira, eta haien ezaugarriak erreparatuta erraz bereizteko modukoak –hiriko hotela eta landa-ostatu bat esate baterako–. Oso interesgarria da ikasleak honako gaietaz buruz gogoeta egitea: ostatu horietako bakoitzean zer zerbitzu mota eskaintzen den, zer motatako bezeroak dituzten, non kokatzen diren, zer dekorazioa duten, zer prezioak dituzten eta abar.</p> <p>Era berean, bisitatutako bi establezimenduen ezaugarriak alderatu beharko dituzte, eta arreta handiz jarraitu beharko dute bisita gidatzen duen pertsonak establezimenduetako bakoitzaren ezaugarriak buruz ematen duen informazio oro.</p>	<p>Ikasleek ikasgelako azalpenetan turismo-ostatuei buruz eskuratutako informazio guztia errealitatean ikusteko.</p> <p>Ikasleek inguruneko mota bakoitzeko turismo-ostatuetakoa establezimenduetan bereizten ikasteko, eta, era berean, horietako bakoitzaren bezeroak, zerbitzuak, xedeak, kokalekuak eta abar jakiteko.</p>	Datuak biltzeko fitxak.
J10-E5 Bisita gidatua osatutako iritzien inguruan esperientziak trukatzeko	2	1 h		X	<p>Ikasleak talde txikietan, turismo-ostatuetakoa bisitaldietan bildutako datuen inguruko gogoeta egingo dute. Talde bakoitza bere kideen ideiak bateratzen eta bisitatutako ostatuetakoa bakoitzaren ezaugarriak laburbiltzen saiatuko da. Horrez gain, bien ezaugarriak alderatuko dituzte eta bisitaren ondoriozko ideien eta ondorioen dokumentua diseinatuko dute. Bisitaldiaren balorazioa ere egingo dute. Ondoren, talde bakoitzeko bozeramaileek ideiak azalduko dizkiete gainerako taldeetako kideei eta batera aztertuko dira aurkezten diren emaitzak.</p>	<p>Ikasleek turismo-ostatuaren gainean ikasitako guztia finkatzeko eta haien inguruneko errealitatean aplikatzen jakiteko.</p>	Datuak biltzeko fitxak. Taldea osatutako dokumentua.
J11 Garraio-zerbitzuen eskaintzari buruzko sarrerako azalpena: <ul style="list-style-type: none"> - Errepidean zeharreko garraioa - Trenbide bidezko garraioa - Uretako garraioa - Aireko garraioa 	3	1 h	X		<p>Irakasleak gaur egun dauden turismo-garraioen munduan sartuko du ikaslea. Behar bezala zuzendutako galderen bidez, irakasleak ikasleentzako partaidetza sustatuko du, eta taldeak gaiaren inguruan aurretik dituen jakintzak zehazten saiatuko da. Jarduera honetan ez da garraio mota horietako bakoitzean sakondu nahi, eskura dauden aukerei buruzko ikuspegi orokorra baino ez da eman nahi.</p>	<p>Ikasleak turismo-garraioaren mundua ezagutzeko eta eskaintza turistikoaren parte garrantzitsu gisa identifikatzeko.</p>	Bideoak. Diapositibak.



J12 Errepidean zeharreko garraioa azaltzea eta gaia sakontzea	3	2 h	X		Taldea kokatuta dagoenean eta, oro har, turismo-garraioaren aukerak ezagutzen dituenean, errepidean zeharreko garraioaren gaia sakonduko du. Merkatua eta Espainiako gaur egungo egoera aztertuko du. Gainera, autobus bidezko garraioan oinarrituta, dauden zerbitzu-aukerak azalduko ditu (iraupena eta zer esparrutan gertatzen diren aintzat hartuta). Ikasleek merkatua behar bezala ezagutzen dutenean, irakasleek errepidean zeharreko garraioaren azken erreferentzia egingo du eta autoen alokairuan oinarrituko da.	Ikasleek garraio-eskaintzaren inguruan duten eskema osatzen joateko, eta jardueran transmititzen diren errepidean zeharreko garraioari buruzko jakintza guztiak gaineratzeko.	Bideoak. Diapositibak. Internet.
J13-E6 Espainian autobusez bidaiatzeko eta autoak alokatzeko informazioa bilatzea	3	1 h	X	X	Irakasleak emango dien gidoi baten laguntzarekin, ikasleek Espainian dagoen errepidean zeharreko garraiorako eskaintzari buruzko informazioa bildu beharko dute. Interneten bilatuko dituzte garraio-konpainiarik garrantzitsuenak, eta eskaintzen dituzten zerbitzuak, tarifak, zerbitzuaren maiztasuna, eta abar begiratu beharko dute. Sarean bidaiariak zuzenean txartelak erosteko aukera dagoen edo bidaiari-agentziaren bidez edo konpainiak hirietan dituen bulegoan/sukurtsalean erosi behar den aztertuko dute. Autoen alokairuari dagokionez, Espainian dauden konpainia nagusiei buruzko informazioa bilduko dute: eskaintzen dituzten zerbitzuak, tarifak, bezeroak bete beharreko baldintzak... Horrekin guztiarekin, jasotako informazioa modu antolatuan eta argi eta garbi bilduko duen laburpen-taula egin beharko du ikasleak.	Ikasleak Espainian dagoen errepidean zeharreko turismo-garraioaren eskaintzarekin ohitzeko, eta balizko bezero bati eskaini dakizkikeen zerbitzuen eta horien ezaugarrien benetako ikuspegia izateko.	Internet. Askotariko liburuxkak. Ikasleak diseinatutako dokumentua.
J14-E7 Lortutako informazioa trukitzea	3	1 h	X	X	Irakasleak moderatuta, ikasleek modu antolatuan eta argi eta garbi azaldu beharko dituzte aurreko jardueran landutako informazioak. Horrela, guztien artean gaur egungo merkatuaren ikuspegi orokorra izatearekin batera, gaia azaltzeko lanean ikasleen inplikazioa lortuko da, ikasleek banaka prestatu duten gaia azaldu beharko baitute.	Ikasle bakoitzak banaka lortutako informazioa osatzeko eta alderatzeko.	Ikasleak diseinatutako dokumentua.



J15 Trenbide bidezko garraioa azaltzea eta gaia sakontzea	3	2 h	x		Taldea kokatuta dagoenean eta, oro har, turismo-garraioaren aukerak ezagutzen dituenean, trenbide bidezko garraioaren gaia sakonduko du. Merkatua eta Espainiako gaur egungo egoera aztertuko du. Gainera, Espainiako trenbide bidezko garraioan oinarrituta, dauden zerbitzu-aukerak azalduko ditu (iraupena eta zer esparrutan gertatzen diren aintzat hartuta). Ikasleek merkatua behar bezala ezagutzen dutenean, irakasleak trenbide bidezko garraioaren azken erreferentzia egingo du, eta Espainian zein munduan tren turistikoen alorrean dauden modalitateak aipatuko ditu: marrubiaren trena, Kantauriko kostaldeko trena, Al Andalus, Orient Express,...	Ikasleek garraio-eskaintzaren inguruan duten eskema osatzen joateko, eta jardueran transmititzen diren trenbide bidezko garraioari buruzko jakintza guztiak gaineratzeko.	Bideoak. Diapositibak. Internet.
J16-E8 Trenbide-garraioari buruzko jardunbide gidatua	3	1 h	x	x	Irakasleak talde txikietan banatuko ditu ikasleak, eta, horrela, talde horietako bakoitza hainbat modutan kontratatutako zerbitzu bera aztertzeaz arduratuko da. Landu beharreko suposizioa horrelakoa izan daiteke: trenbide bidezko garraioaren zerbitzu baterako –adibidez Hendaia-Paris bidaiarako (beste edozein abiapuntu edo helmuga ere baliagarria izan daiteke)– lor ditzakegun prezioak aztertu behar dira, baldin eta zerbitzua hainbat bidaia-agentzian kontratatzen badugu (bakoitzak bere komisioa aplikatuko du), Internet bidez kontratatzen badugu, edo zuzenean tren-konpainiaren geltokian bertan kontratatzen badugu. Lortutako emaitzak aztertu eta ondorioak atera beharko ditu taldeak.	Ikasleek trenbide bidezko garraioaren ezaugarriak aurkitu beharko ditu, baita tren-bidaiarako txartela erosteko eskatzen zaizkion datuak, ibilbide berarako dauden aukerak eta prezioak ere –txartela erosteko bidearen arabera–.	Datuak biltzeko fitxa.
J17 Uretako garraioa azaltzea eta gaia sakontzea	3	2 h	x		Taldea kokatuta dagoenean eta, oro har, turismo-garraioaren aukerak ezagutzen dituenean, uretako garraioaren gaia sakonduko du. Merkatua eta Espainiako gaur egungo egoera aztertuko du, bai ontziei dagokienez, bai portuei eta sektorean lan egiten duten konpainiei dagokienez. Horrez gain, eta gurutzaldien munduan oinarrituta, gurutzaldietako bezero motaren profila azalduko du, baita arlo horretako zerbitzu-aukerak ere (ibai-	Ikasleek garraio-eskaintzaren inguruan duten eskema osatzen joateko, eta jardueran transmititzen diren uretako garraioari buruzko jakintza guztiak gaineratzeko.	Bideoak. Diapositibak. Internet.



					gurutzaldiak, itsas gurutzaldiak, uretako charterrak, gurutzaldi espezializatuak)		
J18 Gurutzaldi turistikoen benetako liburuxka aztertzea	3	1 h	x	x	Gurutzaldi turistikoen liburuxka bat erreferentzia gisa hartuta –“Costa Cruceiros” liburuxka esate baterako– zer motatako ibilbideetan egiten den lan, zer tarifa dauden eta bidaien batez besteko iraupena aztertuko da, eta, batez ere, ontziko bizimoduaren alderdiak: ontziak eskaintzen dituen zerbitzuak (ostatua, otorduen erregimena, entretenimenduak, dendak, aukerako txangoak,...), ontzian eskatzen den arropa, ontziko ordainketak, irrati-komunikazioak,...	Ikasleek turismoaren ikuspuntutik gehien interesatzen den uretako garraioaren (gurutzaldi turistikoen) ezaugarri bereziak ezagutzeko. Horrela, azken urteotan gehien hedatzen ari den produktu turistikoetako batekin ohitzen hasiko dira.	Turismo-liburuxka. Internet.
J19 Aireko garraioa azaltzea eta gaia sakontzea	3	2 h	x		Taldea kokatuta dagoenean eta, oro har, turismo-garraioaren aukerak ezagutzen dituenean, aireko garraioaren gaia sakonduko du. Merkatua eta Espainiako gaur egungo egoera aztertuko du. Irakasleak azalpenak ematean, arreta berezia jarriko die nazioarteko aireko garraioa zuzentzen duten akordioei eta araudiei. IATA elkartearen zer den azalduko da, eta gaur egun dauden hegazkin moten eta aireportuen berri emango da. Hegaldiei dagokienez, irakasleak hegaldien hainbat sailkapen aurkeztuko dizkie ikasleei, aireko garraioaren egitura eta funtzionamendua uler dezaten.	Ikasleek garraio-eskaintzaren inguruan duten eskema osatzen joateko, eta jardueran transmititzen diren aireko garraioari buruzko jakintza guztiak gaineratzeko.	Bideoak. Diapositibak. Internet.
J20 Eskaintza osagarriaren azalpena	4	2 h	x		Irakaslearen azalpenaren bitartez, ikasleak eskaintza turistikoaren parte diren beste zerbitzu osagarri batzuk ezagutzeko ditu; izan ere, eskaintza turistikoaren gero eta parte garrantzitsuagoak dira zerbitzu horiek. Behar bezala antolatutako azalpenaren bidez, irakasleak honakoen gisako zerbitzuak argituko ditu: gidari turistikoa; animazio turistikoa; bidaia-aseguruen salmenta; ikuskizun, museo, monumentu eta abarretarako sarreren salmenta; dibisen salmenta; bidaia-txekeen salmenta; eta abar.	Ikasleak hautemateko eskaintza turistikoa edozein bidaiaren oinarriko zerbitzuen, hots, garraioaren eta ostatuaren eskaintza hutsa baino gehiago dela eta turismoaren merkatuan eskain daitezkeen beste zerbitzu osagarri eta/edo aukerako batzuk eskain daitezkeela.	Diapositibak. Internet.



J21 Lanbidean esperientzia duen turismo-gidari baten hitzaldia	4	1 h	x	x	Gidari turistikoko zerbitzuak egiten dituen bertako enpresaren batekin harremanetan jarri, eta horretan lan egiten duen pertsona batek bere lana zertan datzan azaldu dezan eta bere esperientziak eta ohiko lanak argi ditzan lortu nahi da. Horrez gain, ikasleek parte hartu ahal izango dute, eta egokiak iruditzen zaizkien galderak egin ahal izango dituzte eta beharrezko azalpenak eskatuko dituzte.	Eskaintza osagarri gisa sailkatuta dagoen arren, asko eskatzen den eta edozein bidaiatan ia ezinbesteko den lanbide batera hurbiltzeko ikasleak.	Hizlariak ekarritako materiala.
J22 Interes turistikoko helmuga edo baliabide baterako bisitaldi gidatua	Guztiak	1,5 h	x	x	Irakasleak eta taldeak baliabide edo helmuga turistikoa baterako bisitaldi gidatu batera joango dira. Unitate didaktikoan landu diren turismo-zerbitzuetako batzuk nola eskaintzen diren ikusi nahi da. Horrenbestez, gidari baten lana ikusteko bertako museo edo erakusketa baterako bisitaldi gidatua egin daiteke (eskaintza osagarria), edo bus turistikoa bateko txangoa egin daiteke (garraioa), edo turismoa gauzatzeko beharrezko azpiegitura ikusteko hurbileko portu edo aireportu baterako bisitaldia egin daiteke, eta abar.	Ikasleek eskolan ikusitako eskaintza turistikoaaren elementuetako bakoitza benetako ingurunean identifikatzen ikasteko.	Bisitaldian emandako materiala.
J23 Unitate didaktikoko ikasteko prozesuaren eta lorpenen inguruko esperientzia trukatzeko (itxiera-jarduera)	Guztiak	1 h	x	x	Taldeak eta irakasleak laburpeneko gogoeta-jarduera egingo dute, funtsezko puntuak identifikatzeko eta zalantzak argitzeko. Horrez gain, ikasleei beste kontzeptu batzuk egituratzen erraztuko dieten orokortasunak egingo dira, eta unitate didaktikoan ikasitako guztia aplikatuko da. Emaizak aurkeztea eta irakatsi eta ikasteko prozesua ebaluatzea sustatuko da.	Komunikazioa eta laburpen-lana sustatzeko. Unitate didaktikoko edukiak sakontzeko eta aplikatzeko. Ikasteko prozesua ebaluatzeko. Unitate didaktikoan erdietsitako lorpenak ebaluatzeko.	Unitate didaktikoaren edukien eskema eta kontzeptuen eskema. Unitate didaktikoa eta ikasteko prozesua baloratzeko galdera sorta.

OHARRAK

- Unitate didaktiko honen edukiak, eta moduluen gainerako edukiak eta modulua bera, turismoaren azpiarloko heziketa-zikloetarako zeharkako unitate didaktikoak dira. Turismoaren mundura eta haren ingurunera hurbiltzea da helburua.



5. unitate didaktikoa: BITARTEKARITZA TURISTIKOA ETA BANAKETA SISTEMAK AZTERTZEA ETA BALORATZEA							Iraupena: 16 ordu			
<p>IE1: Sektore turistikoa, haren bilakaera historikoa eta egungo egoera dagokion testuinguruan sartzen du, eta jarduera sozioekonomiko gisa dituen ondorioak aztertzen ditu.</p> <p>IE3: Eskaintza turistikoa aztertzen du, eta haren osagai nagusiak eta bitartekaritza eta banaketako bideak ezaugarritzen ditu.</p> <p>Ikaskuntzaren helburuak:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Teknologia berriek sektore turistikoa duten erabilera ezagutzea, baita turismoa dinamizatzeko elementu gisa duen eragina ere. 2. Bitartekaritza turistikoko bideak ezaugarritzea, baita banaketa-sistema berriak ere. 										
EDUKIAK							Multzok			
							1	2	3	4
PROZEDURAZKOAK										
KONTZEPTUZKOAK		<ul style="list-style-type: none"> • Bitartekaritza turistikoa. Banaketa-bideak. 							X	
JARRERAZKOAK		<ul style="list-style-type: none"> • Teknologia berriak informazio eta sustapen turistikoko iturri gisa baloratzea. 					X			
JARDUERA				METODOLOGIA				BALIABIDEAK		
ZER egingo duan edo duten Jardura mota		Helburu inplikak.	D	NORK		NOLA egingo den		ZERTARAKO egingo den		ZEREKIN egingo den
J1-E1 Unitate didaktikoaren aurkezpena. Unitate didaktiko honetako gaietan ikasleek aurretik dituzten ezagutzen hasierako ebaluazioa egitea			1 h	x	x	<p>Irakasleak ikaskuntzaren helburuak aurkeztuko ditu, unitate didaktikoa modulua barruan kokatuko du, eta modulua osatzen duten gainerako unitateekin lotuko du.</p> <p>Aurkezpenaren ondoren, irakasleak ahozko galderak egingo dizkie ikasle batzuei. Hona orientagarri gisa baliagarriak izan daitezkeen hainbat galdera: Nola lortzen da produktu turistikoa azken kontsumitzailearengana iristea? Zerk edo</p>		<p>Aurretik ikasleek dituzten ezagutzak hautemateko, eta ikasleek aurretiazko ezagutza horien eta ikaskuntzaren helburu diren ezagutzen arteko konexioak ulertzeko.</p> <p>Ikasleak motibatze eta unitate didaktikoko edukien gaineko interesa pizteko.</p>		OCDa. Unitate didaktikoaren eskema grafikoa.



					nork erraz dezake prozesu hori? Zer da bitartekari bat? Zer funtzio betetzen dute bidaia-agentziek?		
J2 Turismoko banaketa-bideen azalpena	Guztiak	1,5 h	x	x	Irakasleak unitate didaktikoaren gaian sartuko ditu ikasleak. "Banaketa-bide" kontzeptuaren definizioarekin hastea iradokitzen da, ondoren zuzeneko eta zeharkako banaketa-bideak bereizteko.	Ikaslea bitartekaritzaren eta banaketa-bideen gaian sartzeko eta kokatzeko. Ikasleek gaiaren barruan ikasiko dutenaren ikuspegi orokorra izateko.	Estatistikak. Grafikoak. Diapositibak.
J3-E2 Inguruneke hotel-sektorean bitartekarien erabilerari buruzko azterketa	Guztiak	2 h	x	x	Irakasleak helarazitako gidoia abiapuntu izanik, hiriko hoteletan logelak erreserbatzean jarraitu ohi diren bideei buruz galdetzeko inkesta bat diseinatu dute taldeko ikasleek. Inkesta taldea osatzen duten ikasle guztien artean eta adostasunez diseinatu denean, guztiek inkesta bakar eta berarekin egingo dute lan. Inkesta hartu eta hirira edo hurbileneko hiriburura aterako dira azterlana egitera. Inkesta talde txikitan edo bikoteka egingo da, hiriko hotelak talde edo bikote guztien artean banatzeko eta establezimendu batean bisitaldiak ez errepikatzeko. Ikasleek behar bezala jaso beharko dute hotelean ematen zaien informazioa.	Hiriko hotel-establezimenduetan erreserbak egiteko ohiko bideak zein diren jakiteko. Ikasleek zonako turismo-agenteekin harremanetan jartzen eta horiek emandako datuak jasotzen eta interpretatzen ikasteko.	Irakasleak emandako gidoia. Datuak biltzeko orria.
J4-E3 J3 jardueraren inguruko esperientziak trukatzea	Guztiak	0,5 h	x	x	Bikote edo talde txiki bakoitzak gainerako ikaskideen aurrean azalduko du hotel-establezimenduetan bildutako informazioa. Moderatzaile batek taldeak aurkeztu duten informazio global guztia bildu beharko du, eta azalpenak amaitzen dituztenean aztertutako guztia bilduko duen dokumentua egingo du. Azkenik, ondorioak aterako dira, eta hiriko hoteletan bitartekarien erabilera-mailaren estatistikak landuko dira.	Ikasleek datuak biltzeko erabilitako metodoa baloratzeko, eta gainerakoen iritzien aurrean bere taldeak lortu dituen ondorioak babesten jakiteko.	Datuak biltzeko orriak. Amaierako ondorioak bilduko dituen dokumentua, moderatzaile funtzioa beteko duen ikasleak landutakoa.
J5 Bitartekariak betetzen dituzten funtzioen azalpena	Guztiak	1 h	x	x	Turismoaren sektoreko bitartekariak betetzen dituzten funtzioak azalduko dizkie irakasleak ikasleei, eta sektorearen eta eskaintzen diren zerbitzuen/produktuen berariazko ezaugarriak nabarmenduko ditu. Ikasleen partaidetzarekin, irakasleak egoera bakoitzean banaketa-bide egokia hautatzeko irizpideak eta arrazoiak azalduko ditu.	Ikasleak bitartekarien funtzioez jakitun izateko eta egoera jakin batzuetan bitartekariak baliatu beharra ulertzeko. Ikasleek egoera bakoitzean banaketa-bide egokia aukeratzeko jakiteko.	Irakasleak emandako suposizio errealak. Diapositibak.



J6 Zeharkako bidearen azalpena (J)	Guztiak	2 h	x	x	Banaketa-bidea definitu ostean eta dauden bi motatako bideak bereizi ondoren, irakaslea zeharkako bidean oinarrituko da, eta bitartekaritza mota nagusiak sakonduko ditu. Azalpenaren lehen zati honetan irakasleak bitartekaritza turistikoko mota nagusi eta ezagunenetako bat garatuko du, bidaia-agentziak. Ikasleen laguntzarekin honako alderdiak aztertuko dituzte: bidaia-agentzien funtzioak eta motak, bidaia-agentzien sektorearen ezaugarriak, bidaia-agentzien enpresa-taldeak, bidaia-agentzien elkartek,...	Ikasleak zehatz-mehatz ezagutzeko bidaia-agentzien arloa.	Datu estatistikoak. Internet. Diapositibak.
J7-E4 Bidaia-agentzia nagusien analisia	Guztiak	1 h	x	x	Ikasleek Espainiako merkaturako bidaia-agentzia nagusien web-orriak aztertuko dituzte. Eskaintzen dituzten zerbitzuak, bidaia-agentzia bakoitzaren kokapena eta funtzionatzeko modua aztertuko dituzte. Laburbiltzeko, aztertutako bidaia-agentzietako bakoitzean hautemandako ezaugarriak eta bereizgarriak bilduko dituen laburpen-dokumentua landuko dute.	Ikasleek bidaia-agentziei buruzko informazioa Interneten bilatzen ikasteko, eta lortzen duten informazioa interpretatzen jakiteko.	Internet Ikasleek lortutako informazioa biltzeko landutako dokumentua.
J8-E5 Aurreko J7 jardueran lortutako ondorioak trukitzea	Guztiak	0,5 h	x	x	Aztertutako web-orrietan bildutako datuen inguruko gogoeta egingo dute ikasleek –talde txikietan–. Talde bakoitza bere kideen ideiak bateratzen eta aztertutako bidaia-agentzietako bakoitzean hautemandako ezaugarriak laburbiltzen saiatuko da. Horrez gain, batzuen eta besteen ezaugarriak alderatuko dituzte, eta azterketaren ondoriozko ideien eta ondorioen dokumentua diseinatuko dute. Azterlanaren balorazioa ere egingo dute. Ondoren, talde bakoitzeko bozeramaileek ideiak azalduko dizkiete gainerako ikaskideei, eta guztiok elkarrekin aztertuko dituzte aurkezten diren emaitzak.	Ikasleek bidaia-agentzien gainean ikasitako guztia finkatzeko eta haien ingurunean errealitatean aplikatzen jakiteko.	Datuak biltzeko fitxak. Taldea osatutako dokumentua.
J9 Zeharkako bidearen azalpena (II)	Guztiak	1 h	x	x	Banaketa-bidea definitu ostean eta dauden bi motatako bideak bereizi ondoren, irakaslea zeharkako bidean oinarrituko da, eta bitartekaritzako mota edo bide nagusiak sakonduko ditu. Azalpenaren bigarren zati honetan, irakasleak erreserba-zentralak edo Central Reservation	Ikasleek erreserba-zentralak zer diren, zertarako balio duten, eta zer motatakoak dauden jakiteko.	Datu estatistikoak. Internet. Diapositibak.



					System-ak garatuko ditu. Besteak beste, erreserba-zentralaren kontzeptua landuko da, eta horren alde onak eta gaur egun dauden zentral motak aztertuko dira.		
J10-E6 Espainiako bidaia-agentzien elkarte nagusien analisia	Guztiak	1 h	x	x	Ikasleek Espainiako merkaturako bidaia-agentzien elkarte nagusietako batzuen web-orriak aztertuko dituzte. Agentziei eta kontsumitzaileei eskaintzen dizkieten zerbitzu motak eta funtzionatzeko modua aztertuko dituzte. Laburbiltzeko, hautemandako ezaugarriak eta bereizgarriak bilduko dituen laburpen-dokumentua landuko dute.	Ikasleek bidaia-agentzien elkartei buruzko informazioa Interneten bilatzen ikasteko, eta lortzen duten informazioa interpretatzen jakiteko.	Internet Ikasleek lortutako informazioa biltzeko landutako dokumentua.
J11-E7 Aurreko A10 jardueran lortutako ondorioak trukatzea	Guztiak	0,5 h	x	x	Aztertutako web-orrietan bildutako datuen inguruko gogoeta egingo dute ikasleek –talde txikietan–. Talde bakoitza bere kideen ideiak bateratzen eta hautemandako ezaugarriak laburbiltzen saiatuko da. Horrez gain, batzuen eta besteen ezaugarriak alderatuko dituzte, eta azterketaren ondoriozko ideien eta ondorioen dokumentua diseinatuko dute. Azterlanaren balorazioa ere egingo dute. Ondoren, talde bakoitzeko bozeramaileek ideiak azalduko dizkiete gainerako ikaskideei, eta talde osoaren artean aztertuko dituzte aurkezten diren emaitzak.	Ikasleek bidaia-agentzien elkarten gainean ikasitako guztia finkatzeko eta haien ingurunean errealitatean aplikatzen jakiteko.	Datuak biltzeko fitxak. Taldea osatutako dokumentua.
J12 Zeharkako bidearen azalpena (III)	Guztiak	1 h	x	x	Banaketa-bidea definitu ostean eta dauden bi motatako bideak bereizi ondoren, irakaslea zeharkako bidean oinarrituko da, eta bitartekaritza mota nagusiak sakonduko ditu. Azalpenaren hirugarren zati honetan, irakasleak erreserba-sistema konputerizatuak garatuko ditu (CRS eta GDS sistemak). Zehazki, honakoak landuko du: sistema konputerizatu horien kontzeptua, aurrerariak, CRS sistematik GDS sistemarako jauzia. Gainera, gaur egungo GDS sistemak aztertuko ditu, eta, batik bat SABRE, AMADEUS, GALILEO eta WORLDSPAN sistemak.	Ikasleek erreserba-sistema konputerizatuak zer diren, zertarako balio duten, eta zer motatakoak dauden jakiteko.	Datu estatistikoak. Internet. Diapositibak.
J13 Zeharkako bidearen azalpena (IV)	Guztiak	1 h	x	x	Banaketa-bidea definitu ostean eta dauden bi motatako bideak bereizi ondoren, irakaslea zeharkako bidean	Ikasleek bitartekaritza turistikoko motak eta agenteak ezagutzeko, eta nola	Datu estatistikoak. Internet.



					oinarrituko da, eta bitartekaritza mota nagusiak sakonduko ditu. Azalpenaren laugarren zati honetan, irakasleak bitartekaritza turistikoko beste agente batzuk garatuko ditu, eta horien artean hegaldietarako eta hoteletarako broker-ak eta IDSak (Interneten oinarritutako banaketa-sistemak). Azken horien artean, turismo-enpresetako web-orriak, bidaia-agentzia birtualak eta Internet bidezko banaketa-bideak azalduko ditu.	funtzionatzen duten eta zer funtzio betetzen duten jakiteko.	Diapositibak.
J14 Banaketa turistikoa integratzeko modalitateen azalpena	Guztiak	1 h	x	x	Irakasleak banaketa turistikoa integratzeko dauden moduak azalduko ditu, eta honako modalitateak bereiziko ditu: bertikala, horizontala, osagarria eta kontratu bidezkoa. Komeni da aztertutako modalitateetako bakoitza benetako adibide batekin argitzea, ikasleek kontzeptua hobeto uler dezaten.	Ikasleek integrazioa zer den, banaketa turistikoa arloan nola egituratzen den eta zer modalitate dauden jakiteko.	Datu estatistikoak. Internet Diapositibak.
J15 Esperientziak trukatea (itxiera-jarduera)	Guztiak	1 h	x	x	Taldeak eta irakasleak laburpeneko gogoeta-jarduera egingo dute, funtsezko puntuak identifikatzeko eta zalantzak argitzeko. Horrez gain, ikasleei beste kontzeptu batzuk egituratzen erraztuko dieten orokortasunak egingo dira, eta unitate didaktikoan ikasitako guztia aplikatuko da. Emaizak aurkeztea eta irakatsi eta ikasteko prozesua ebaluatzea sustatuko da.	Komunikazioa eta laburpen-lana sustatzeko. Unitate didaktikoko edukiak sakontzeko eta aplikatzeko. Ikasteko prozesua ebaluatzeko. Unitate didaktikoan erdietsitako lorpenak ebaluatzeko.	Unitate didaktikoaren edukien eskema eta kontzeptuen eskema. Unitate didaktikoa eta ikasteko prozesua baloratzeko galdera sorta.
OHARRAK							
<ul style="list-style-type: none"> Unitate didaktiko honen edukiak, eta modulua gainerako edukiak eta modulua bera, turismoaren azpiarloko heziketa-ziklo guztietarako zeharkako unitate didaktikoak dira. Turismoaren mundura eta haren ingurunera hurbiltzea da helburua. 							



6. unitate didaktikoa: GUNE TURISTIKOAK IDENTIFIKATZEA ETA AZTERTZEA

Iraupena: 20 ordu

IE1: Sektore turistikoa, haren bilakaera historikoa eta egungo egoera dagokion testuinguruan sartzen du, eta jarduera sozioekonomiko gisa dituen ondorioak aztertzen ditu.
IE2: Tipologia turistikoak identifikatzen ditu, eta eskariarekin eta aurreikus daitekeen bilakaerarekin lotzen ditu.
IE3: Eskaintza turistikoa aztertzen du, eta haren osagai nagusiak eta bitartekaritza eta banaketako bideak ezaugarritzen ditu.

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Turismo-jarduerak gune turistikoaren garapen ekonomikoari eta sozialari dagokionez duen garrantzia baloratzea.
2. Kokapen espazialean eragina duten faktoreak zerrendatzea, betiere zonaren turismo motaren arabera.
3. Zona bateko turismo-garapenaren alde onak eta alde txarrak deskribatzea.
4. Gune turistikoaren berezitasunak deskribatzea.
5. Turismoak gune turistikoaren ekonomian duen garrantzia baloratzea.

EDUKIAK					Multzoak			
					1	2	3	4
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Jarduera turistikoak biztanleriagune baten garapenean duen garrantzia baloratzea. Zona bateko turismo-garapenaren alde onak eta alde txarrak identifikatzea. Estatuko gune turistikoak identifikatzea. 				X		X	
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Gune turistikoa. Gune igorlea eta gune hartzailea. 					X		
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Gaur egungo turismo-joeren bilakaeraren gaineko interesa. Turismoak duen garrantzi ekonomikoaren balorazioa eta bame-produktu gordinerako ekarpena. 					X	X	
JARDUERA			METODOLOGIA				BALIABIDEAK	
ZER egingo duan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikat.	D	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den	
			Ir.	Ik.				
J1-E1 Unitate didaktikoaren aurkezpena. Unitate didaktiko honetako gaietan ikasleek aurretik dituzten ezagutzen hasierako		1 h	X	X	Irakasleak ikaskuntzaren helburuak aurkeztuko ditu, unitate didaktikoa modulua barruan kokatuko du, eta modulua osatzen duten gainerako unitateekin lotuko du. Aurkezpenaren ondoren, irakasleak ahozko galderak egingo	Aurretik ikasleek dituzten ezagutzak hautemateko, eta ikasleek aurretiazko ezagutza horien eta ikaskuntzaren helburu diren ezagutzen arteko	OCDa. Unitate didaktikoaren eskema grafikoa.	



ebaluazioa egitea.					dizkie ikasle batzuei. Hona orientagarri gisa baliagarriak izan daitezkeen hainbat galdera: Zer da gune turistikoa? Zerk bihurtzen du helmuga bat gune turistiko? Positiboa ala negatiboa da gune turistiko izatea? Zergatik?	konexioak ulertzeko. Ikasleak motibatuzko eta unitate didaktikoko edukien gaineko interesa pizteko.	
J2 Gune turistikoaren kontzeptuaren sarrerako azalpena.	1,4,5	1 h	X		Irakasleak "gune turistiko" kontzeptuak zer esan nahi duen azalduko die ikasleei, eta, puntu horretan, "gune igoilea" eta "gune hartzailea" bereiziko ditu. Ikasleek kontzeptu horiek ulertu dituztenean, orokorrean aintzat hartzen diren hainbat motatako gune hartzaileak bereizi ahal izango ditu irakasleak.	Ikasleak gaian sartzeko eta, batez ere, ikasleek "gune turistiko" kontzeptua bere egiteko.	Diapositibak. Mapak.
J3 Turismo-korronteen estatistiken azalpena eta analisisa.	1,5	0,5 h	X		Irakasleak mundu-mailako turismo-korronteen bilakaera estatistikoa aurkeztuko die ikasleei, guztiak batera munduan izan diren turismo-fluxuak azter ditzaten eta mundu-mailako gune turistiko adierazgarri bilakatu diren helmugak finka ditzaten.	Irakasleak emandako estatistikak interpretatzen ikasteko eta munduan dauden gune turistiko finkatuak ondorioztatuzko.	Estatistikak. Internet. Diapositibak. Mapak.
J4-E2 Merkatuko turismo-liburuxken analisisa.	2,4	1,5 h	X	X	Ikasleek, talde txikietan antolatuta, merkatuan dagoen liburuxken eskaintza aztertuko dute, eta gaur egun gune turistiko hartzaile sendotzat jotzen diren guneen zerrenda egingo dute. Ondoren, helmuga berari buruzko hainbat liburuxka hartuta, horien artean honako arlo hauetan hautemandako desberdintasunak aztertu eta jorratuko dituzte: prezioa, ostatuak, kalitateak,... Azterketa horren bitartez, helmuga turistiko bat mundu-mailan gune hartzaile garrantzitsu egiten duten ezaugarriak ondorioztatu beharko dituzte ikasleek.	Merkatuan dauden liburuxken bitartez, ikasleek gune turistiko hartzaile baten ezaugarriak atera eta ondorioztatuzko gai izateko. Ikasgelan ikasitakoak merkatu turistikoarekin lotura zuzena duela ikusteko, eta, hala, ikasgelan jorratutako puntuak turismoaren munduan hautemandakoaren ondorioa baino ez direla konturatzeko.	Turismo-liburuxkak Datuak eta ondorioak biltzeko orria.
J5-E3 Esperientziak trukatzeta.	2,4	0,5 h	X	X	Talde bakoitzak gainerako ikasleen aurrean azaldu beharko ditu merkatuko liburuxken analisiaren ondoren ateratako ondorioak, gune hartzaile batek izan behar dituen ezaugarriak, eta, batez ere, azterketa egiteko jarraitu duten metodoa. Guztiak batera, eta moderatzaile baten	Ikasleek beren ideiak eta ondorioak gainerako ikaslideei azaltzen ikasteko, gainerakoak azalpenak baloratzeko, eta, desadostasunen kasuan, haien ideiak gainerakoak	Landutako turismo-liburuxkak. Taldeak osatutako ondorioen dokumentua.



					laguntzarekin, talde bakoitzak lortu dituen ondorioak alderatu beharko dituzte, eta talde horietako bakoitzak hautemandakoan egon daitezkeen aldeak baloratu beharko dituzte.	ideien aurrean babesteko.	
J6 Munduko merkatu igorle nagusien azalpena.	2,4	1 h	X		Ikasleek "gune igorle" eta "gune hartzaile" kontzeptuak bere egin ondoren, gune igorlean oinarrituko da irakaslea, eta mapen laguntzarekin, gaur egun mundu-mailan dauden gune igorle nagusiak azalduko dizkie ikasleei. Azalpen horretarako, egoki iruditzen zaizkion estatistikez baliatu ahal izango da.	Ikasleek ikusteko zer herrialde diren edo munduko zer zona diren turismoaren ikuspuntutik igorle, hau da, nondik ateratzen diren munduko turismo-fluxu garrantzitsuenak.	Diapositibak. Mapak. Estatistikak.
J7-E4 Inguruneko turismo-azoka bat bisitatzea, adib. SEVATUR edo EXPOVACACIONES	Guztiak	2,5 h	X	X	Ikasleek, banaka edo bikoteka, turismo-azoka bat bisitatzean eskura daitezkeen informazio guztia aztertu beharko dute. Sustatzen diren helmugen berri jaso beharko dute, sustapen hori nola egiten den, sustatzen den helmuga turistiko horietako bakoitzean zer eskaintzen den, zer gune hartzaile berri hautematen den,...	Ikasleek tokian bertan ikusteko nola babesten eta sustatzen den helmuga turistiko bat, zein diren gaur egungo gune hartzaileak, eta zer entitate arduratzen diren helmuga horiek sustatzeaz eta bultzatzeaz.	Azokan eskatutako liburuxkak. Datuak eta informazioa biltzeko orria.
J8-E5 Esperientziak trukatzea.	Guztiak	1 h	X	X	Ikasleek, moderatzailearen laguntzarekin, turismo-azoka bisitatzean izandako esperientzia kontatuko diete gainerakoei. Aztertutako liburuxken berri emango diete, eta aurkitu dituzten helmuga turistikoak adieraziko dizkiete. Ondoren, aztertutako helmuga turistiko horiek guztiak turismoaren gune hartzaile garrantzitsu bihurtzeko haien ustez zer ezaugarri duten azalduko dute.	Ikasleek datuak biltzeko erabilitako metodoa baloratzeko, eta gainerakoen iritzien aurrean haien taldeak lortu dituen ondorioak babesten jakiteko.	Landutako turismo-liburuxkak. Taldeak osatutako ondorioen dokumentua.
J9 Gune hartzaile nagusien azalpena: Espainiako estatuko erakarmen handiko eremu nagusiak (J).	Guztiak	1,5 h	X		Ikasleek "gune igorle" eta "gune hartzaile" kontzeptuak bere egin ondoren, gune hartzailean oinarrituko da irakaslea, eta mapen laguntzarekin, gaur egun mundu-mailan dauden gune hartzaile nagusiak azalduko dizkie ikasleei. Lehen atal honetan, <u>Espainian oinarrituko da</u> , eta Espainiaren erakargarri turistiko nagusiak jorratuko ditu.	Ikasleek munduko gune hartzaile nagusien mapa eratzeko buruan, eta, horrela, turismo-azokako bisitaldiarekin jasotako informazioa osatzeko.	Diapositibak. Turismo-liburuxkak. Bideoak.



J10 Gune hartzaile nagusien azalpena: Europako erakarmen handiko eremu nagusiak (II).	Guztiak	1,5 h	X		Ikasleek "gune igorle" eta "gune hartzaile" kontzeptuak bere egin ondoren, gune hartzailean oinarrituko da irakaslea, eta mapen laguntzarekin, gaur egun mundu-mailan dauden gune hartzaile nagusiak azalduko dizkie ikasleei. Bigarren atal honetan, <u>Europan oinarrituko da</u> , eta Europaren erakargarri turistiko nagusiak jorratuko ditu.	Ikasleek munduko gune hartzaile nagusien mapa eratzeko buruan, eta, horrela, turismo-azokako bisitaldiarekin jasotako informazioa osatzeko.	Diapositibak. Turismo-liburuxkak. Bideoak.
J11-E6 Ikaslearen herriari edo eskualdeari buruzko informazioa bilatzea.	2,4	2 h	X	X	Irakaslearen laguntzarekin, ikasleak bikoteka edo talde txikitik antolatuko dira, eta hurbileko ingurune herri buruzko informazioa bilatuko dute. Bikote edo talde txiki bakoitzak herri bat hartuko du, eta dagokion turismo-bulegora edo -patronatura jo beharko du herri edo eskualde horrek hartzen duen turismoaren ezaugarrien berri izateko. Lortutako datuak, kontuan izanik, aztertutako herria gune hartzailea edo igorlea den eta zergatik ondorioztatu beharko du.	Ikasleek ingurune herriek turismoaren ikuspuntutik dituzten ezaugarriak ezagutzeko, eta, datu estatistikoetan oinarrituta, udalherri bakoitza turismoaren ikuspuntutik nola sailkatzen den aztertzen ikasteko.	Turismo-bulegoetan lortutako informazioa. Datuak biltzeko orria.
J12-E7 Esperientziak trukatzeta.	2,4	1 h	X	X	Ikasleek, moderatzailearen laguntzarekin, turismo-bulegoak edo -patronatuak bisitatzearan izandako esperientzia kontatuko diete gainerakoei. Aztertutako liburuxken berri emango diete, eta aurkitu dituzten informazioak jakinaraziko dizkiete.	Ikasleek datuak biltzeko erabilitako metodoa baloratzeko, eta gainerakoen iritzien aurrean haien taldeak lortu dituen ondorioak babesten jakiteko.	Landutako turismo-liburuxkak. Taldea osatutako ondorioen dokumentua.
J13 Gune hartzaile nagusien azalpena: munduko erakarmen handiko eremu nagusiak (III)	Guztiak	2 h	X		Ikasleek "gune igorle" eta "gune hartzaile" kontzeptuak bere egin ondoren, gune hartzailean oinarrituko da irakaslea, eta mapen laguntzarekin, gaur egun mundu-mailan dauden gune hartzaile nagusiak azalduko dizkie ikasleei. Hirugarren atal honetan, <u>Munduaren gainerakoan oinarrituko da</u> , eta erakargarri turistiko nagusiak jorratuko ditu.	Ikasleek munduko gune hartzaile nagusien mapa eratzeko buruan, eta, horrela, turismo-azokako bisitaldiarekin jasotako informazioa osatzeko.	Diapositibak. Turismo-liburuxkak. Bideoak.
J14 Euskal Autonomia Erkidegoa turismo-helmuga gisa aztertzeo eztabaida.	Guztiak	1,5 h		X	Gune hartzaile eta igorle nagusiak eta horien ezaugarriak ikusi direnean, irakasleak Euskal Autonomia Erkidegoa estatu-mailako helmuga turistiko gisa hobetzeko proposamenak eztabaidatzea bultzatuko du, eta moderatzaile gisa jardungo du. Eztabaida horretan gune	Ikasleek unitate didaktikoan ikusi duten guztia hurbilenean errealitatean aplikatzeko eta haien ideiak eta iritziaz gainerakoen aurrean adierazteko. Hainbat ikuspuntu lortzeko eta	Ikasgela edo bilera-gela.



					hartzaille handia izateko aukera emango duten edo eragotziko duten alderdi sendoak edo ahulak bilatuko dituzte. Jarduera horretan, moderatzaileak ikasle guztien parte-hartzea sustatu beharko du, eta, hala, eztabaida ikasle gutxi batzuen esku gera dadin saihestu beharko du, eta iritzi-fluxu aberasgarria erdietsi beharko du.	komunikazioa garatzeko.	
J15 Gune hartzaileen arazo batzuen azalpena.	3	0,5 h	X		Unitate didaktikoan ikusitako edukiak osatzeko, irakasleak eta ikasleek gune turistiko hartzaile batzuetan aurre egin behar diren arazo nagusiak aztertuko dituzte. Arazo horien artean daude: ekosistema eta paisaia suntsitzea, turismoak hirigintzan eta arkitekturan duen inpaktua, eta abar.	Behar bezala planifikatu gabe garatu ziren gune hartzaile batzuetan turismoak izan dituen inpaktu negatiboen jakitun izateko ikasleak.	Bideoak. Diapositibak. Prentsa-artikuluak.
J16 Esperientziak trukatzeta (itxiera-jarduera)	Guztiak	1 h	X	X	Taldeak eta irakasleak laburpeneko gogoeta-jarduera egingo dute, funtsezko puntuak identifikatzeko eta zalantzak argitzeko. Horrez gain, ikasleei beste kontzeptu batzuk egituratzen erraztuko dieten orokortasunak egingo dira, eta unitate didaktikoan ikasitako guztia aplikatuko da. Emaizak aurkeztea eta irakatsi eta ikasteko prozesua ebaluatzea sustatuko da.	Komunikazioa eta laburpen-lana sustatzeko. Unitate didaktikoko edukiak sakontzeko eta aplikatzeko. Ikasteko prozesua ebaluatzeko. Unitate didaktikoan erdietsitako lorpenak ebaluatzeko.	Unitate didaktikoaren edukien eskema eta kontzeptuen eskema. Unitate didaktikoa eta ikasteko prozesua baloratzeko galdera sorta.
OHARRAK							
<ul style="list-style-type: none"> Unitate didaktiko honen edukiak, eta modulua gainerako edukiak eta modulua bera, turismoaren azpiarloko heziketa-zikloetarako zeharkako unitate didaktikoak dira. Turismoaren mundura eta haren ingurunera hurbiltzea da helburua. 							



7. unitate didaktikoa: INDIZE ETA ESTADISTIKA TURISTIKOAK INTERPRETATZEA ETA MANEIAZTEA

Iraupena: 12 ordu

IE1: Sektore turistikoa, haren bilakaera historikoa eta egungo egoera dagokion testuinguruan sartzen du, eta jarduera sozioekonomiko gisa dituen ondorioak aztertzen ditu.
IE2: Tipologia turistikoak identifikatzen ditu, eta eskariarekin eta aurreikus daitekeen bilakaerarekin lotzen ditu.
IE3: Eskaintza turistikoa aztertzen du, eta haren osagai nagusiak eta bitartekaritza eta banaketako bideak ezaugarritzen ditu.
IE4: Eskaintza turistikoa eta gaur egungo joerak ezaugarritzen ditu, eta eragiten duten faktoreekin eta elementuekin lotzen du eskaintza.

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Turismoaren bilakaera aztertzea.
2. Turismo-tipologia nazionalen joerak aztertzea.
3. Nazioarteko turismo-tipologiaren joerak aztertzea.
4. Turismoak gune turistikoaren ekonomian duen garrantzia baloratzea.
5. Eskariaren gaur egungo joerak eta garatzeko bidean diren merkatuak ikertzea.

EDUKIAK		Multzoak			
		1	2	3	4
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Turismoaren bilakaera aztertzea. • Jarduera turistikoak biztanleriagune baten garapenean duen garrantzia baloratzea. • Estatuko tipologia turistikoaren joerak aztertzea. • Nazioarteko tipologia turistikoaren joerak aztertzea. • Eskari turistikoaren gaur egungo joerak aztertzea. 	X X	X X		X
KONTZEPTUZKOAK					
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Gaur egungo turismo-joeren bilakaeraren gaineko interesa. • Turismoak duen garrantzi ekonomikoaren balorazioa eta bame-produktu gordinerako ekarpena. 		X	X	



JARDUERA					METODOLOGIA			BALIABIDEAK
ZER egingo duan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikak.	D	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den	
			Ir.	Ik.				
J1-E1 Unitate didaktikoaren aurkezpena. Unitate didaktiko honetako gaietan ikasleek aurretik dituzten ezagutzen hasierako ebaluazioa egitea.		1 h	X	X	Irakasleak ikaskuntzaren helburuak aurkeztuko ditu, unitate didaktikoa moduluaren barruan kokatuko du, eta modulua osatzen duten gainerako unitateekin lotuko du. Aurkezpenaren ondoren, irakasleak ahozko galderak egingo dizkie ikasle batzuei. Hona orientagarri gisa baliagarriak izan daitezkeen hainbat galdera: Nola eraikitzen dira estatistikak? Zer fidagarritasuna dute? Zer pertsona edo entitate arduratuko da turismo-estatistikak egiteaz eta argitaratzeaz? Zertarako balio dute estatistikek?	Aurretik ikasleek dituzten ezagutzak hautemateko, eta ikasleek aurretiazko ezagutza horien eta ikaskuntzaren helburu diren ezagutzen arteko konexioak ulertzeko. Ikasleak motibatuzko eta unitate didaktikoko edukien gaineko interesa pizteko.	OCDA. Unitate didaktikoaren eskema grafikoa.	
J2 Turismo-estatistiken inguruko azalpena.	Guztiak	0,5 h	X		Turismo-estatistiketarako lehen hurbilketa honetan, irakasleak turismo-estatistiketan islatu daitezkeen turismoaren alorreko fenomeno nagusiak azalduko dizkie ikasleei. Honako hauek adibidez: merkatuko estatistikak (eskari eta eskaintza turistikoaren estatistikak), korranteekin lotzen diren estatistikak, gune hartzaileari buruzko estatistikak, ...	Egiten diren turismo-estatistika nagusietarako lehen hurbilketa egiteko, eta estatistika horiek egitearen arrazoiak ulertzeko.	Turismo-estatistikak. Diapositibak. Internet.	
J3 Informazioa lortzeko eta estatistikak egiteko metodoen azalpena: \sum Lortu nahi diren informazioak. \sum Informazio-iturriak. \sum Metodo kualitatiboak eta kuantitatiboak. \sum Galdera sorta. \sum Estatistikak lantzeko etapak.	Guztiak	2 h	X		Ikasleen laguntzarekin batera, hainbat turismo-adierazleren bilakaera aztertzeke erabiliko diren informazioa lortzeko eta estatistikak egiteko metodoak aztertuko dira.	Ingurunean ikus dezaketen edozein estatistikaren atzean dagoen lana hautemateko, eta landutako informazioa estatistika batean nola islatzen den jakiteko.	Turismo-estatistikak. Diapositibak. Bideoak.	
J4-E2 Estatistikak egiteko jardunaldi gidatua.	Guztiak	2,5 h	X	X	Irakasleak emandako jarraibideetan oinarrituta, ikasleek oportetako helmugetan buruzko informazioa lortzeko galdera	Ikasleek, nork bere esperientziaren bidez, honakoa baloratzeke: estatistika batean	Irakasleak emandako gidoia.	



					sortak prestatu beharko dituzte. Galdera sorta diseinatu ostean, ikasleek 20 pertsonaren gaineko ikerketa egingo dute. Lortutako datuekin, jasotako erantzunak islatuko dituen estatistika egingo dute, baita dagokion txostena ere.	atzean dagoen lana, estatistika egiteko arrazoiak, eta estatistikatik atera daitezkeen ondorioak.	Datuak biltzeko orria. Estatistika-taulak.
J4-E3 Esperientziak trukatzea.	Guztiak	0,5 h	X	X	Ikasle bakoitzak gainerakoei kontatu beharko die galdera sorta diseinatzearen esperientzia. Galdera sorta zergatik diseinatu zuen horrela eta zer lortu nahi zuen argitu beharko die. Ondoren, informazioa lortzeko eta dagokion estatistika lantzeko prozesua deskribatuko du. Esperientzia eta lortutako emaitzak baloratuko ditu.	Ikasleek informazio lortzeko eta estatistikak lantzeko metodoen inguruan ikasitako guztia finkatzeko eta haien ingurunean errealitatean aplikatzen jakiteko.	Datuak biltzeko orria. Ikasleak landutako estatistika-taulak.
J5 Espainiako turismoaren arloko estatistika-iturrien azalpena.	Guztiak	1 h	X		Irakasleak labur-labur azalduko ditu Espainian egiten diren turismoaren arloko estatistika nagusiak, eta horiek kontsultatzeko modua. Ikasleekin batera, estatistika horien azken bertsioa eskuratuko du, eta estatistika horietako bakoitzak zer islatzen duen eta nork egiten duen aztertuko du. Arreta berezia eskainiko zaie Estatistika Institutu Nazionalaren eta Turismo Idazkaritza Nagusien estatistikei.	Ikasleek turismoaren alorrean Espainian dauden estatistika-iturri nagusiak kontsultatzen ikasteko.	Diapositibak. Internet. Turismo-estatistikak.
J6 Mundu-mailako turismoaren arloko estatistika-iturrien azalpena.	Guztiak	1 h	X		Irakasleak labur-labur azalduko ditu munduan egiten diren turismoaren arloko estatistika nagusiak, eta horiek kontsultatzeko modua. Ikasleekin batera, estatistika horien azken bertsioa eskuratuko du, eta estatistika horietako bakoitzak zer islatzen duen eta nork egiten duen aztertuko du. Munduko Turismo Antolakundearen estatistikei jarriko zaie arreta berezia.	Ikasleek turismoaren alorrean munduan dauden estatistika-iturri nagusiak kontsultatzen ikasteko.	Diapositibak. Internet. Turismo-estatistikak.
J7-E3 Euskal Autonomia Erkidegoko turismo-informaziorako iturrien analisisa.	Guztiak	1 h	X	X	Irakasleak Euskal Autonomia Erkidegoko turismo-informaziorako iturrietara heltzea erraztuko die ikasleei, eta horiek (bikoteka edo talde txikietan) informazio-iturriak bildu eta horietako bakoitzak ematen duen informazioaren ezaugarriak deskribatuko dituzte.	Ikasleek Euskal Autonomia Erkidegoko turismoaren arloko informazio estatistikoa behar dutenean, nora jo dezaketen jakiteko, eta, aldi berean, horietako bakoitzean zer aztertzen den eta nork egiten duen hautemateko.	Turismo-estatistikak. Internet. Datuak biltzeko orria.



J8-E4 Esperientziak trukatzea.	Guztiak	0.5 h	X	X	Ikasle bakoitzak edo ikasle talde bakoitzak bildutako informazio-iturrien berri emango die gainerakoei. Guztien artean informazioa alderatu eta osatuko dute, eta lortutako ondorioak bilduko dituen dokumentua egingo dute.	Ikasleek turismoaren alorreko informazioa lortzeko eta estatistikak lantzeko metodoen inguruan ikasitako guztia finkatzeko eta haien ingurunean errealitatean aplikatzen jakiteko.	Datuak biltzeko orria.
J9 KASU PRAKTIKOA: Turismo-estatistikaren interpretazioa. Ondorioak ateratzea eta aurreikuspenak ondorioztatzea.	Guztiak	1 h	X	X	Turismoaren alorreko estatistika berriren batean oinarrituta, eta ikasleekin batera, irakasleak estatistika horretatik atera daitezkeen informazioa aztertuko du. Estatistika hori egiteko zer iturri erabili den aztertuko da, eta datuak ikusita atera daitezkeen ondorioak finkatuko dira. Azkenik, eta aurreko urteetako estatistika berean oinarrituta, guztion artean baloratuko dute aurreikuspenak ondorioztatzea komeni den edo ez.	Unitate didaktikoan ikasitako guztia praktikan jartzeko, eta edozein estatistikari aurre egiten eta horretatik informazioa ateratzen irakasteko ikasleei.	Irakasleak emandako turismo-informazio berria. Grafikoak. Ondorioen orria.
J10 Esperientziak trukatzea (itxiera-jarduera)	Guztiak	1 h	X	X	Taldeak eta irakasleak laburpeneko gogoeta-jarduera egingo dute, funtsezko puntuak identifikatzeko eta zalantzak argitzeko. Horrez gain, ikasleei beste kontzeptu batzuk egituratzen erraztuko dieten orokortasunak egingo dira, eta unitate didaktikoan ikasitako guztia aplikatuko da. Emaidak aurkeztea eta irakatsi eta ikasteko prozesua ebaluatzea sustatuko da.	Komunikazioa eta laburpen-lana sustatzeko. Unitate didaktikoko edukiak sakontzeko eta aplikatzeko. Ikasteko prozesua ebaluatzeko. Unitate didaktikoan erdietsitako lorpenak ebaluatzeko.	Unitate didaktikoaren edukien eskema eta kontzeptuen eskema. Unitate didaktikoa eta ikasteko prozesua baloratzeko galdera sorta.
OHARRAK							
<ul style="list-style-type: none"> Unitate didaktiko honen edukiak, eta moduluen gainerako edukiak eta modulua bera, turismoaren azpiarloko heziketa-zikloetarako zeharkako unitate didaktikoak dira. Turismoaren mundura eta haren ingurunera hurbiltzea da helburua. 							

